

...eta **Kitto!**

ELKARRIZKETA: Joxe Azurmendi filosofoa • GAZTEKITTO: Narruzko Zezen sariak banatuta • ERREPORTAJEA: Euskal artzaiak Ameriketara / Txernobilgo haurrak udan hartzeko aukera • FIRIN FARAN: Arrate Kultur Elkartearen programa • DANON AHOTAN: Ego errekararen saneamendua amaituta • GEURE GAIA: Gazteen ohitura eta zaletasunak ikertzen

627 zkia. EIBARKO ASTEKARIA 2008-II-15



Pedruchok ez du Peinetarik nahi

MULTIOPTICAS

1.A ZERBITZU OPTIKOETAN
www.multioplicasgipuzkoa.com

bigarren betaurreko pareak DOHAIN

AZKEN EGUNAK

Bonardi
betaurrekoak
doan

konbi
eskaerak



J. Carlos Guerra 1
Tel. 943 79 29 95
ARRASATE

Ibarganai 16
Tel. 943 76 15 75
BERGARA

C/ Nueva 15 - GROS
Tel. 943 32 66 48
DONOSTIA

Bidebarrieta 2
Tel. 943 20 05 22
EIBAR

Koldo Mitxelena, 7
Tel. 943 51 78 11
ERRIBERIA

Mendibil M. G.
Tel. 943 63 99 01
IRUN

J.M. Barandiaran Erip.
Tel. 943 88 99 88
ORDIZIA

San Frontizoko 23
Tel. 943 69 84 70
TOLOSA

CENTRO MEDICO EIBAR

INKORPORAZIO BERRIAK:

- FOTODEPILAZIO UNITATEA, IPL LASERRAREKIN
- FOTOGAZTETZEA
- DOANEKO DIAGNOSTIKOA
ETA NEURRIKO FINANTZIAZIOA

Unitate berri hau martxan ipini dugula-eta,
Eibar Osasundegian %10eko deskontua
eskaintzen dizuegu otsailaren amaierara arte.

Urkizu Pasealekua, 13
Tlfn. 943.120.200

Dagoeneko
67.000 bisita
baino gehiago
izan ditugu!

...horietako
bat izan zara?

...azken orduko berriak...

...elkartea atalka...

...asteko alea...

...agenda...

...eta orain
buletin zerbitzua!!!

www.etakitto.com



Euskara Elkarteak

ARGITARRATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartera
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe, Silbia Hernandez

eta Ekhi Belar.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Borja Olabe

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ihintza Fernandez

TIRADA:

7.950 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN:

1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Sail honen helburua ez da euskera irakastea, ezta hiztegi bat egitea ere. Gure gurasoek eta haien gurasoek erabiltzen zuten euskera gogora ekartzea eta berreskuratzea da asmoa. Gaur egunean euskerak esparru guztiak hartu ditu eta gaur egun baino euskaldun gehiago ez da inoiz egon; baina, hala ere, oraindik euskera ez da erabateko komunikazio-tresna: hainbat gauza esatea kostatu egiten zaigu, ez dugu gaztearen bezalako erraztasunik eta trebetasunik. Sail honetan euskeraren alde adierazkorra landu nahi dugu, euskerak berez daukan gaitza eta berakatzatza berreskuratu. Horretarako aurreko belaunaldietara jo dugu, gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera jatorraren berri jasotzeko.

DON-DON EGIN.- Jokuetan katigu nor geratzen den erabakitzeke zozketa egin. Beste batzuen artean, kantu edo rezitazio hauek erabiltzen ziren: "Don, don, Beleron, Belerongo herrixan zazpi gizon dantzan, ni mozkorra, zu mozkorra, nahi dabenak kan-po-ra!". "Don, don, kikilimon, sarrakuke, sarramon, pike pike, tortolike, ban bu, zireketake, bu". Jolasetan gatibu nor geratuko den erabakitzeke erabiltzen den leloa. "Don-don, kikilimon, Don Ramuke, San Ramon, pike-pike, tortolike, ban-bu, zireketako bun".

IRAKURLEA PROTAGONISTA eskutitzak

EGUNKARIA LIBRE!

Kokapena.- Otsailaren 20an 5 urte beteko dira euskal kulturaren bilgune nagusia zen eta den Euskaldunon Egunkaria itxi zutenetik. Egunkariaren aurkako erasoak eduki propioa zuen, euskararen aldeko eta kultur gintzaren topagune sozialerako ereduaren aurka zuzenean jotzen zuelako.

Une honetan, itxierak irekitako eraso finkatzen dator epaiketa, fiskalak akusazioa erretiratuta ere, Espainiako auzitegi nazionalaren aurrera eramango baitituzte Egunkaria auziko auzipetuak.

Eta orain 5 urte egin bezala, orain ere Euskal Herriak erantzun beharra du. Epaikearen aurrean perspektiba propioaz aritzea da funtsezkoena. Ez gaitzen mugatu auziperatuekiko elkartzuna adierazi eta epaikearen salaketa egitera. Bilaka dezagun epaiketa euskarazko komunikabideen aldeko indar soziala berrindartzeko aukera. Euskarazko komunikabideak Aurrera!

Itxierari egunkari berri eta hobea eginez eman genion erantzunik sendoena. Epaikeari, euskarazko komunikabideen aldeko urrats berri baten bidez egingo diogu aurrera, Egunkaria sortu eta birsortu zuen indar euskaltzale zabal horrekin bat eginez. Euskarazko komunikabideen alorrean dituen erronka nagusiei begira, aurrera!

Helburu nagusiak.- Egunkaria itxi zutenean bezala, euskalgintzak atxikimendua eta mobilizazioa erakutsi

behar du. Gure helburu nagusiak honako hauek dira:

- Epaiketa euskal komunikabideen aldeko urrats berrien aldeko indar sozialaren akuilua bilakatu

- Estatu espainiarrari Egunkaria zigortzeko aukera itxi.

Erakutsi, frogatu behar diegu Euskal Herrian ez dutela horretarako inolako zirrikiturik. Ez dutela hori aldatuko koiunturen edo estatuaren premien arabera, euskal kultur gintzaren eta euskal jendartearen babes egonkorra beti egongo dela hor. Eraso berri bakoitzak gure indarrak berrakibatzea, biderkatzea baino ez du lortuko. Beraz, berriro ez!

Otsailak 20. Erantzunaren ablapuntua.- Esan bezala otsailaren 20an beteko dira 5 urte. Eta otsailaren 20a erantzunaren abiapuntu izan dadin nahi dugu: **Egunkariaren itxieraren aurka egiteko eta euskal komunikabideen aldeko mezua zabaltzeko ballatu nahi dugu** zoritxarreko urteurrena.

Helburu horrekin, herriz herri, Egunkaria libre! lemapean ekimen desberdinak planteatuko dira, eta dei egiten dizuegu gurekin batera mobilizazio egun hau bultzatzen parte har dezazuen.

Harremanetarako: Telefonoak: 943 300 600 / 697 99 11 98. **Helbide elektronikoa:** herriak@egunkaria.info **Webgunea:** www.egunkaria.info

Egunkariaren Alde Elkarteak

GREBA EGUNAREN BALORAZIOA

SOHATen (Soin Heziketaren aldeko Taldea) aldetik asteleheneko grebaren balorazio oso positiboa egiten dugu. Ez da ohikoa greba deialdia jarraitu eta honez gain mobilizazio desberdinetan, jai giroan, horrelako jarraipen zabalak ikustea. Astelehenean 500 bat irakasle parte hartu zuten ekintza desberdinetan: Lakua aurrean egindako kontzentrazioan, parodietan, 75.000 sinaduren entregan, Gasteizko kaleetatik kalejiran eta azkenik Legebiltzarren aurrean egindako kontzentrazioan.


Grebaren jarraipena, Gorputz Hezkuntzako irakasleriari dagokionez, sindikatu guztien eta SOHATen datuak alderatuz, %80koa izan zen. Honi, gure aldarrikapenekin bat egin duten beste arloetako (Tutoreak, Ingelesko irakasleak, musikako irakasleak, PTak...) ira-

kasle kopurua gehitu behar zaio. Zentzu honetan, behin eta berriro aldarrikatu dugu arazoa ez dela soilik Soin Heziketako irakasleena, Hezkuntza komunitate osoarena baizik. Adibide gisa hor ditugu Baldegobia eta Dimako ikastetxeak, ateak guztiz itxi zituztenak.

Alde batetik, murrizketaren arazoa eta eztabaida gizarate eta hezkuntza komunitate osora zabaldu dugu. Bestetik, Hezkuntza Sailaren nagusikeria salatu dugu, inposizioa eta dekretazioa arazoa konpontzeko alternatiba hoberenak ez direla garbi uzteko.

Orain, Hezkuntzako agintariak eta talde politiko desberdinei hausnarketa egitea dagokie eta arazoa konpontzea edo Gorputz Hezkuntza ezagutza arloaren balore hezitzailea lurperatzea.


SOHAT



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETTA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria



Adimen orekatua

Deigarria iruditzen zait dorekaren kontzeptua, edo desioa, nolako erraztasunez agertzen zai- gun bizitzaren edozein ar- lotan. Psikologiaren azken garapenen arabera, giza- kion adimenean ere oso beharrezkoa omen da ore- ka mantentzen saiatzea bal- din eta gure gaitasun inte- lektuala areagotzea nahi badugu.

Adimenaren ezagutzari dagokionez, gaur egun onartua dago bost dimen- tsioko garuna dugula, hau da, instintiboa, emozionala, intuitiboa, arrazionala eta planifikatzailea. Aurreko biak abereen antzekoak dira, eskuin hemisferioak, reaktiboak, hainbat estimu- loei berehalako erantzuna emateko balio dutenak. Hurrengo biak ordea eboluzio- aren bidean primateok ga- ratu ditugun dimentsioak dira, ezker hemisferioak, azterketak, dedukzioak eta arrazoiaketa logikoak egiteko erabiliak. Eta azken dimen- tsioa da, berriz, bereziki gi- zatiarra: aukerak baloratu, ondorioak aurreikusi eta ekintza planifikatua erabaki- tzen duena.

Beraz, adimenaren eten- gabeko erronka gure gaita- sun anitz horien erabilpen egokiena egiten asmatzea da. Lehenengo bi dimen- tsioak, besteak baino askoz azkarragoak izanik, kaltega- rri gerta dakizkigun ekintzak burutzera eramán gaitzake- telako. Eta azterketa analiti- ko eta logikoei dagokienez, gehienak emozionalki oso baldintzatuak daudela erra- zegi ahazten dugulako.

Jakina, dimentsio guztiak dira baliagarriak eta hobetu beharrekoak. Baina gure instintoak, emozioak, intui- zioak, arrazoiak eta planifi- kazio gaitasunak orekatuz bakarrik lor genezake adi- mentsuagoak bihurtzea.

**Eduardo
Zubiaurre**

Ingurumen sailburua Alfako lanetan bisitan

Esther Larrañaga Eusko Jaurilaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamen- du sailburua Eibarren izan zen astelehen goizean, Ego erreka- ren ingurumen-berreskuratzea bertatik bertara ikusten. Ego erreka Eibarren egiten duen ibilbidean garbitzeko lanak amaitutzat eman dituzte eta laster hasiko dituzte lanak Ermua eta Mallabian. Bizkaiko udalerrri bi horietan egindako lanek eragin zuzena izango dute gurean eta 6 milioi euro erabiliko dituzte erreka- ren gar- biketa eta berreskuratze lane- tarako. Besteak beste, udalerrri bakoitzean hodi biltzaile bana eraikiko dute eta urte biko epean lanak amaituta egongo direla aurreikusi dute.



Jaurilaritzak 9'5 milioi euroko inbertsioa egin du Ego berreskuratze-ko.

Larrañagak Ego Alfa ingu- ruan nola geratu den ikusteko aukera izan zuen bere bisitan, Iñaki Arriola alkateak eta Mi- guel de los Toyos eta Jesus Rementeria zinegotziek la- gunduta. Inguru horretan erreka- ren 200 bat metro bis-

tan geratu dira eta bere erre- tenaren albo biak bere onera eramán dituzte. Larrañagak zuzentzen duen sailak 9'5 mi- lioi euroko inbertsioa egin du Ego erreka berreskuratze-ko, Alfako zatian ez ezik Eibarko ibilbide osoan.

Idekoren egoitza berria Elgoibarren

Urtarrilaren 25ean Ideko Zentro Teknolo- gikoko eraikuntza berria inauguratu zen Elgoibarren. Inauguraziora Juan Jose Iba- rretxe Eusko Jaurilaritzako lehendakaria joan zen eta berarekin batera politika eta enpresa mundu- ko hainbat ordezkari egon ziren.

Eraikuntzak 6 milioi euroko inbertsioa eta



3.000m²-ko azalera dauka. Bertan ultradoitasu- neko laborategia nabarmentzen da. Laborategi hau estatu mailan erreferente bilakatu da, dauz- kan ekipo berrien sofistikazioarengatik. Ekital- dian beste laborategi berri biren eraikuntzaren inguru- ko azalpenak eman zituzten: laborategie- tako bat ikerketetarako laserraren aplikazioari buruzkoa da eta bestea, berriz, konpositeekin egindako fabrikazioaren inguru- koa.

Gaur egun Idekok 100 langile dauzka eta Eu- ropako 30 proiektutan hartzen du parte, 10 pa- tenterekin, aldizkarietan egiten dituen 19 argi- talpenekin, kongresu nazionalekin, nazioarteko beste 16 kongresurekin eta azken urteetan SCI aldizkarietan egiten dituen 9 argitarapen gehitu behar zaizkie aurrekoei. Horri guztiari esker Ide- ko ikerkuntza eta berrikuntzan erreferente ga- rrantzitsua bilakatu da estatu mailan makina- erraminta eta fabrikazio teknologietan, eta arlo zehatz batzuetan nazioarteko mailan ere bai.

Aldaketak Eusko Treneko autobusetan

Aurreko zapatuaz geroztik Eusko Treneko autobusek ibilbidea aldatu dute astebu- ruetan, herriko erdialdeko kaleetako pe- atonalizazioa dela-eta: Elgoibarrerako norantzan doazen autobusak Untzagan geratuko dira eta, ondoren, autobusek bariantea edo saihe- sbidea hartuko dute, Estaziño kaleko irteera hartu, hor- tik Errebalera joan eta San Agustin kaletik Bide- barrietan behera egiteko, lanegunetan egiten duten ohiko ibilbideari heltzeko. Aldaketak ho-

nako ibilbidea egiten duten autobusei eragingo die: Mallabia-Ondarroa eta Ermua-Azpeitia. Le- henengo ibilbidekoak Bidebarrieta eta Azitaingo geltokietan geratuko dira eta bigarrenekoak, be- rriz, Bidebarrietan. Bestalde, Untzogatik Onda- rroarako autobusa bost minutu lehenago irtengo da zapatu, domeka eta jai egunetan (ordu pun- tuetan irtengo dira). Informazio gehiagorako 902543210 telefono zenbakira deitu daiteke edo www.euskotren.es webgunean kontsultatu.

autuan

ASIER URZELAIRI OMENALDIA

Otsailaren 1ean Hiru Erregeen Mahaian istripuan hil zen Asier Urzelai gazteari omenaldia egingo diote haren familiakoek eta lagunek. Kalamuan izango da omenaldia, otsailaren 23an (datorren asteko zapatuan), 12.00etatik aurrera.

LANGABETU GEHIAGO

Eibarko INEM-eko bulegoak emandako datuen arabera, langabezia tasak gora egin du azken hila-beteotan. Urriaz geroztik %13 egin du gora bulegoan izena emanda dutenen kopuruak. Azken datuari begiratuta, Debabarrenean 1.928 lagun dauka lan bila, horietatik gehienak (1.600) emakumezkoak. Datuak herririk herri begiratuta, Eibarren

1.108 langabetu daute (urrian baino 116 gehiago), Elgoibarren 302 (30 gehiago), Mutrikun 183 (37 gehiago), Deban 149 (29 gehiago), Soraluzen 137 (3 gutxiago) eta Mendaron 49 (9 gehiago).

OBRA LEHIAKETARA

Egogain Gerontologia Zentroko sukaldeak kontpontzeko lanak lehiaketara atera ditu Foru Aldundiak. Eskaintza 121.000 euroko aurrekontuarekin irtengo da enkantera. Aurkezten diren eskaintzak aztertuta eta behin lanak zein enpresak egingo dituen erabakita, lana amaitzeko 3 hila-beteko epea izango dute langileek. Betebeharreko baldintzak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean kontsultatu daitezke (www.gipuzkoa.net).



Eibartarron konkistak

Beti gertatzen zait gauza bera. Hiru hilabetetik behin zutabe bat idazteko eskatu eta azkenengo unean korrika eta presaka ibiltzen naiz lanak bukatzeko, gutxienez urtean lautan. Egin beharrekoak amaitu eta berehala esaten diot neure buruari iritsi dela erremedioa jartzeko garaia. Eta urtearen beste laurdena pasatakoan jabetzen naiz berriz ere akats berbera egin dudala, eta dagoeneko erremediorik ezin zaiola jarri.

Imajinatzen dut denoi gertatzen zaigun gauza dela. Jarritako helburuak ez betetzeaz ari naiz, noski, ez zutabeak idazteaz. Seguru bainago, niri gertatzen zaidan bezala, zuetako gehienoi ere ezer ez ezean gertatzen zaizkizuela horiek guztiak.

Urte hasieran jarri ohi gara asmo berriei bueltak ematen. Hala ere, otsail alderako urtarrean egindako promesak hautsita izaten ditugu normalean. Eta orduan udaberriari begira jartzen gara ilusioz.

Eguzkiak gogor jotzen duen sasoi horietan inguruko hondartzak konkistatzeko joera dugu eibartarrok, Deban hasi eta Mutriku, Ondarroa, Lekeitio edo Zaratzeraino gure herria luzatuz. Itsasertzetik pasioan ibili eta gimnasioako orduak edota dietak utzitako markak agerian utzi nahi izaten dugu orduan. Urteko beste sasoietan, baina, ez ditugu gure eginbeharrekoak bete, eta gimnasia joan beharrean ederto asko egon gara etxeko sofan botata, edota taberna zuloan orduak nola joaten diren ikusten.

Eta orduan konturatzen gara urte hasierako asmo onak direlako horiek horretan gertatu direla. Nik behintzat argi dut. Aurten ere, irribarrea auzpegian, inguruko hondartza guztiak konkistatuko ditut.

Unai Artetxe
(KAZETARIA)

Debegesa berrikuntza agente

Eusko Jaurlaritzak, SPRIk, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Debabarreneko tokiko ordezkariak barixakuan aurkeztu zuten Debegesa eskualdeko berrikuntzako agente bezala. Aurkezpenaren ekimenaren sustatzaile nagusiek hartu zuten parte: José Ignacio Zudaire Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Berrikuntza eta Energia sailburuordea, Mauri Lazkano SPRIn zuzendari nagusia, José Ramón Guridi Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako diputatua eta Irune Berasaluze Debegesako presi-




dentea. Abuztuaz geroztik Debegesa Innovanet Sarearen kide da. Innovanet Sarean Eskadiko Erakunde nagusiak batu dira, berrikuntza arloan Euskadi Europako eredu bilakatzeko asmoarekin. Debegesak eskualdeko agente izatea onartu du eta enpresei eskualdeko berrikuntzarekin zerikusia duten gogoetak, esperientziak

eta jakintzak partekatzeko aukera emango die. Horretarako, Debabarreneko enpresei berrikuntzaileak izaten lagunduko dieten ekimen eta programak sustatu eta koordinatuko ditu, besteak beste, Berrikuntza Foroak eta Berrikuntza Agendak. Argibide gehiago nahi izanez gero, www.euskadinnova.net helbidea kontsultatu daitezke.

Eibartar bi atxilotuta

Baltasar Garzon epailearen aginduz domekatik astelehenerako goizaldean Polizia nazionalak atxilotutako 14 laguneren artean eibartar bi daude, Elgoibarren bizi den Joseba Zinkunegi eta Mikel Garaiondo. Euskal Herriko hainbat herritan egindako operazioan Karmelo Landa, Sonia Jacinto, Jesus Maria Agirre Arrobarre, Mikel Etxaburu, Eusebio Lasa Altuna, Peio Xabier Galvez, Josetxo Ibazeta, Iñigo Valdakalonge, Jose Manuel Jurado, Aitor Arantzabal eta Karmele Aierbe atxilotu zi-

tuzten. Nuria Alzugarai, berriz, Granadan atxilotu zuten, preso bati bisita egin eta gero. Polizia Nazionalak 19 etxebizitza eta lokaletan miaketak egin zituen, tartean ANV-EAE eta EHAK-ko egoitza nagusiak eta Iruñea eta Barakaldoko egoitzak ixteko agindua eman zuen Garzonek. Atxilotuei Batasunaren Mahai Nazionala berregiteko ahaleginean jardutea, eta, beraz, "erakunde terroristako" kide edo laguntzaile izatea leporatu die epaileak eta Auzitegi Nazionalen deklaratzera deitu arte inko-



Joseba Zinkunegi eibartarra dago azken atxilotuen artean.

munikatuta eduki dituzte. Atzorako greba orokorra deituta zegoen, atxilotetak eta EAE eta EHAK alderdien ilegalizazioa salatuzko.

ORAIN DELA

10 urte

1998-II-20
225. ZKIA.



Muzategiko etxiak botatzen hasi ziran.



Deporreko jabalina jaurtitzailiak nagusi izan ziran Gipuzkuakuan.


- Berba Eman hitzarmena berretsi zeban herriko 52 taldek. Lau urte lehenago pistotako hitzarmenak aisialdi, kirora eta umiekim lamian jarduten zeban talde berrixen konpromisuetako jaso zittuan.
- Asier Albisu ordura arte Debatuen erakundeko zereantia rama Jawlaritako Nekazaritako Elkartegai Politika eta Industriadako Zuzendari zuzendatu zeban. Bere tokira Agurtrame Etxamizak hartu zeban.
- Mikel Garrizategi eta Umai kongarba jabalina jaurtiketako Gipuzkoako txapelketa eta aspitxapelketa zereantia ziran Urtetan jokatutako txapelketan. Aurretik be podiumaren gainean egondutako ziran biak.
- Muzategi barrutitako Udalaren asmoa zala eta, toni kalari ibi eta bertako etxiak botatari ekim zereantia. Hirigintza ekimenerako unidadiak bi ziran: Muzategiko aldiakia hartan zebana eta Aldapatekoa.

Zezenzaleek ez dute La Peineta begi onez ikusten

Pedrucho Eibarko Zezenzaleen Elkarteak domekan egin zuen urteko batzarrean, elkarteko kideak zezen plazaren inguruan Udalak duen asmoarekin bat ez datozela argi geratu zen. Zezenzaleek komunikabideetara zabaldu idatzia jarraituta, "lehenik eta behin, Udalaren proiektuaren inguruan dugun iritzia eman aurretik, argi azaldu nahi dugu gure elkarteak ahots eta iritzi propioak dituela eta horiek bere zuzendaritzaren bitartez ematen ditugula ezagutzera, eta ez dugula onartuko hortik kanpoko inork gure iritzia ordezkatzea".

Idatzian azaltzen dutenez, Eibarko Udalak 2005ean Eneko Anduezak zuzentzen zuen Pedrucho Eibarko Zezenzaleen Elkarteari eman zion 'Estalitako eta erabilera anitzeko zezen plaza'-rako aurreproiektua egitearen ardura, horretarako Udal aurrekontuan zegoen 30.000 euroko partida erabilita: "Orduko zuzendaritzak Eibarko Garate eta Oteiza arkitektoei aurreproiektua egiteko eskatu zien.

12.000 euroko kostua izan zuen aurreproiektuaren aurkezpena Portalean egin zen, ia oihartzunik izan ez zuen batzar berezian. Gerora iritzi publikoari eta Udala osatzen zuten alderdi guztiei aurkeztu zitzaie, balorazioa egin eta erabakiren bat hartzeko. Bakarrik Ezker Batua eta PP azaldu ziren alde, besteen iritziarik ez dugu jaso. Hori bai, Udaleko Aurrekontu Batzordean 3.000.000 euroko inbertsioa proposatu zuten aurrera egiteko, baina inbertsioa ez zen aurrera irten (gogoratzen dugunez aldeko boto bi, kontrako beste bi eta abstentzio bat izan ziren). Hauteskunde Orokorrek pasatu eta proiektua ahaztuta geratu zen. Baina 2007ko maiatzean, Udal Hauteskundeekin bat eginenez eta gure elkartearen zuzendaritza berriarekin, Udalak deituta bileran egin genuen. Gure elkartetik zuzendaria, zuzendari-ordea, diruzaina eta bokal bat joan ginen, Eibarko Zezenzale Batzordetik Eneko Andueza eta Eduardo Garcia joan ziren eta Udala ordezkatzen Iñaki Arriola alkatea eta Jose Luis Vallés".



PSE-EE alderdiko hauteskunde programan agertu zen La Peineta aurreproiektuan kirol pistak daude.



Ezkerrean agertzen den irudia Garate eta Oteiza arkitektoek zezenzaleei aurkeztutako aurreproiektuko da.

Lehenengo aurreproiektuaren alde

Bilera horretan eman zieten La Peineta aurreproiektuaren berri Eibarko Zezenzaleen Elkartekoei, publiko egin aurretik euren iritzia ezagutzeko asmoarekin. Aldaketak sortu ziren harridura handia izan zen eta iritzia hauteskundearen ostean emango zutela adierazi zuten zezenzaleek, "baina hiruzpalau egunera La Peineta PSE-EE alderdiaren hauteskunde programan agertu zen".

Domekako batzarraren ondoren, Zezenzaleen Elkartekoei gogor kritikatu dute La Peineta aurreproiektua: "100 urteko zezenplaza bota eta erabilera pu-

blikorako plaza egin nahi dute, ordaindu beharreko aparkalekuak azpian eginda eta kirol pistekin, lantzean behin zezen plaza gisa erabiltzeko aukera emanda". Proiektuak aurrera egitekotan zezen plaza denborarekin desagertu egingo den beldur dira zezenzaleak eta aurretik egindako proiektua, "beste barik, egin dakizkien hobekuntzak aztertu barik" baztertzea kritikatzeko dute. Garate eta Oteizak egindako aurreproiektuari berriz heltzeko eskatzen diote Udalari, zezenzaleentzat eta herriarentzat orohar hobea izango dela uste dute-eta.

Babestutako etxebizitzak Egazelai eta Bolinguan

Egazelai eta Bolinguan etxebizitzak egiteko proiektua sosiguz-sosiguz gorpuzten doa. Danera 170 bat etxebizitza jasotzeko asmua daka Eusko Jaurlaritzak, ekimen publikua eta pribaua uztartzen daberen formulari jarraituta.

Bolingua Errekatzu kaliaren atzeko al-dian dago eta Orio Higieziñak jada lurra- ren zati handi bat eskuratu dau eta falta jakona lortzeko etxietako jabiekin tratutan



SILBIA HERNANDEZ

Bolinguan be etxebizitza barrixak juango dira.

dabiz. Egazelai, barriz, San Kristobal auzua eta autopistaren artian dago eta hortxe etxebizitzak jaso ahal izateko lurra erosteko negoziatzatzen dihardue Eusko Jaurlaritzak. Herri Antolamendurako Plan Nagusixak toki bixetan etxebizitzak aurreikus- ten ditu: Egazelaiaren kasuan protek- ziño ofizialeko 52 etxebizitza eta sal- menta libreko beste 35 egiteko as- mua dago eta Bolinguan, barriz, protekziño ofizialeko 114 etxebizitza eta salmenta libre- ko 103 egittia dago aurreikusita.

Formula mistua

Proiektu bixak aurrera etartzeko formula mistua da, hau da, ekimen publikua eta pribaua bateratzen dit- ttuan formula: lurraren jabiak Orio Higieziñak eta Eusko Jaurlaritzaz- tian, bixen artian hitzartutakuari ja- rraituta, Eusko Jaurlaritzako Etxebiz-



SILBIA HERNANDEZ

Egazelaiaren inguruak.

tza saila arduratuko da toki bixetako pro- tekziño etxiak egittiaz eta salmenta li- breko etxiak jasotzia, barriz, promotora pribauaren arduria izango da. Bixen arteko barne akordixuetan alde bixak, batak bes- tiari konpensatzia jasotzen da. Behiñ hori ziheztuta, proiektuak aurrera egiteko pro- zesua hasiko da eta, aurreikusittako epiak betetzen badira, aurten bertan formia har- tzen juango dira promoziño bixak.

Errebalgo itturrixa kenduko dabe

Zerbitzu sailletik ar- gittu deskuenez, Errebal kaleko ittu- rrixa laster kenduko dabe. Prentsa-oharrian diñuena- ren arabera, Errebalgo hainbat auzotarrek egin- dako idatzixari erantzunez

hauxe emon nahi dabe aditzera: *“Errebalgo Azo- ka eraisteko obren adjudi- kazioduna dan Amenabar enpresarekin bildu eta ge- ro, honako erabagixa har- tu zala: Errebal kaleko itturrixa, Musika Eskolaren*

aldamenian dagan ittu- rrixa, harik eta makiña eraislia bertara aillegatzen denera arte ez dala ken- duko. Beraz, aittatutako itturrixa laster kenduko dala jakinarazten detsagu auzotarrei”.



EMPRESA ZENTZEN FACULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS EMPRESARIALES

ATE IREKIAK!

OTSAILAK 21 18:00 osteguna ARETO NAGUSIAN > **ORATIKO CAMPUSA**
Tel: 943 71 80 09 / ogorste@etea.mondragon.edu

OTSAILAK 23 10:00-13:00 larunbata ARETO NAGUSIAN > **IRUNEKO CAMPUSA**
Tel: 943 63 91 29 / collur@bidasoa.etea.mondragon.edu

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI!

Ordoko titulazio hauek eskaintzen ditugu

- > Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Gradua
- > Zuzendari Idazkaritza
- > Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza 2. zikloko lizentziatura

WWW.ETEO.MONDRAGON.EDU



Elorrioko Kainabera Gobernuz Kanpoko Erakundeak aurten ere Errusiako haurrak ekarriko ditu Euskal Herrira, uda hemen pasa dezaten. Kainaberak 2000. urtean ekin zion Errusiako umezurtz-etxeetako eta arazo ekonomikoak dituzten Errusiako familietako umeak ekartzeari, haien osasun egoerarekin kezkatuta. Izan ere, haurrak bizi diren tokietan aurrera egiteko arazo latzak dituzte, muturreko klima dutelako edo kutsadura oso handia dagoelako. Horregatik, berriz ere dei egin nahi diete hemengo familiei, udan hango aurren bat etxean har dezaten.

Errusiako umei laguntzeko familia bila

Volvogrado, Murmansk (Kola Penintsula), Nizhevtovsk (Mendebaldeko Siberia) eta beste hainbat tokitako hurrei hilabete batzuz bizi baldintza egokiak eskaintzea da Kainabera erakundearen helbururik behinena: *“Umeei arreta pertsonalizatua eta maitasuna, familia giroa, elikadura osasuntsua, eguzkia, itsasoan bainatzeko aukera eta etxetik kanpoko ekintzetan parte hartzeko aukera eskaini nahi diegu”.*

Umeak udako opor sasoiaren etortzen dira eta, erakundeko arduradunen berbetan, *“orain arte ekimenarekin bat egin duten familia gehienek errepikatu egiten dute eta oso esperientzia aberasgarria dela azaltzen digute. Begiraleek familiek egiten duten lana goraipatu*

egiten dute eta urtetik urtera haur gehiago ekartzeko ahalegina egitea eskatzen digute, asko baitira laguntza honen premia dutenak”.

Egoera larria

Izan ere, gaur egungo Errusian desberdintasun sozialak gero eta nabariagoak direla azaltzen dute Kainaberakoek: *“Egoera horretan gehien sufritzen dutenak umeak dira, batez ere hautsitako edo desegituratutako familietakoak eta umezurtz-etxeetan pilatzen direnak. Eta, horien artean, muturreko klima edo kutsadura handia duten herrietako umezurtz-etxeetan dauden umeak daude okerren. Egoeraren larritasuna ikusita, Durangaldeko familia batzuk 1998an hasi ziren inguru horietako umeak*



udan eurenera ekartzen. Berrizera etorri ziren lehenengoak, ia denak Gallartako Bikarte Elkartearen eskutik. Hurrengo udarako eskualde osoko 36 familiak egin zuten bat ekimenarekin. Eraginkortasun eta gertutasun handiagoaren bila, Elorrioren 2000ko urtarilean egin genuen bileran programan parte hartzen genuen familiek Kainabera GKE-ko kide izatera pasatzea erabaki genuen, Bikarte eta besteekin harremana hautsi barik”.

Ikastetxeetako opor sasolan

Hemengo ikastetxeetako udako oporrekin batera ailegatzten dira Errusiako haurrak Euskal Herrira. Iazko kanpainen Murmansk Nizhnevartovsk eta Volgogradoko 107 neska-mutilek igaro zuten uda hemengo familietan, ekainaren 25etik irailaren 4ra arte. Eurekin batera 5 begiralek eta Moskutik

etorritako itzultzaile batek jarduten dute.

Laguntza honen premia duten haurrak asko direla ikusita, Kainaberakoek aurtengo udako kanpainarekin bat egitera animatu nahi dituzte Eibar eta inguruko familiek. Umeak udara arte ez dira ailegatuko, baina beharrezkoak diren gauza guztiak prestatu ahal izateko denbora behar da eta, horregatik, kanpainarekin bat egin nahi duten familiek otsailaren 29rako ipini behar dira harremanetan Kainabera erakundearekin, behin-behineko harreraren inguruko informazio gehiago jasotzeko. Eibar eta inguruko koordinatzailearekin berba egiteko 943203091 edo 650818642 telefonoetara deitu behar dute interesatuek (Marta). Bestela, www.kainabera.org helbidean programa honen eta beste batzuen berri jaso daiteke.



Kainaberako guraso talde bat 2006ko urriaren egindako bazkarian.



Tallajiarena, zoratzekua zala-eta, aldatu bihar zala aspaldittik entzun dogun gauzia da. Modelo batetik bestera tartia hainbestekua izatiak arazo asko sortu ditu eroslien artian eta, egun berian erosittako erropian bat baiño gehixago ailegau da etxera 38 batekin eta 42ko beste batekin, bixak pertsona berarendako, jakiña. Espaiñako Osasun Ministerixuak arazuari aurre egin nahi izan detsa eta, estaturia erreferente moduan

hartuta, emakumien erropia hiru digituekin tallatzia proposau bihar detsa Europar Batasunari. Horren arabera, hiru morfotipo hartu dira oiñarri moduan: diabolua -batzuredako diabrua-, kanpania eta zilindrua. Hirurak be, psikoterapeuten esanetan, emakumiaren bizitzaren hiru une zihatziak doiazanak: fase zilindrikua oindiok ama izan ez danarekin juango zan; diabolua uñiak izaten dabeneren sasoiarekin juango zan lotuta; eta kanpana menopausiaren ondorengua izango zan. Aurrez aittatutako digituak zihazteko, bularra, gerrixa eta mokorra hartuko dira kontuan eta, tallaje barrixa egitteko, 60 herrixetako jentiarekin egin dabe probia, euren artian elgoibartarak. Honekin tallia errealdetik gertuago egongo dela diñue adittuak eta, horrela, telebisiñoko edertasunaren perfil hori baztertuko dalakuan dagoz. Dana dala, gizonezkueri dana ondo geratuko jakue? Zergaittik ez da eurekin probarik egin? Zer izen ipiñiko jakuezen euren morfotipueri?



Maria Mogollo 68 urte, jubilaia

Ba bai, bai. Askotan asko gustatzen jakuzen gauzak erostera goiaz eta ez dagoz gure neurrikuak, eta pena haundixa emoten desku. Holan, taillak piska bat haundixaguak ipintzen badabe, ba hobeto egongo zan. Nik 48 bat erabiltzen dot, baiña denda danetan ez dabe neurri berdiña erabiltzen tailla berdiñerako.



Jose Miguel Zarate 23 urte, montadoria

Neri begittantzen jata taillak bateratzia onena izango zala. Holan nahaste gixtiago egongo ziran eta arropia erosteko orduan arazo gixtiagorekin aukeratu ahal izango zan. Gaiñera, beste bateri oparittu nahi badetsazu, askoz beriazago erosi leikixo, ez zalako talla berdiñaren artian alderik egongo.



Teofilo Olmedo 70 urte, jubilaia

Nik uste dot baktotxak beran tallia erabili bihar dabela, datorkixon moduan, eta bateratze hori txotxolokerixa bat dala begittantzen jata. Gaiñera, nik uste dot arropia baktotxan neurria egñ biharko zala, oso gatxa dalako baktotxari dana ondo gelditza. Arropia beti egñ biharko zan neurria.



Ana Marina Etxaniz 60 urte, etxeandria

Gorputz baktotxa ezberdina da, nik josten dakitt eta modelo baktotxa neurri batekua da. Holan, modeluan arabera neurri batekua izango da arropia edo bestekua. Tallak bateratzia? Ba ez dakitt, nik oso gatxa ikusten dot, ez dakitt egñ ahal izango da. Ni 'kanpana' izango nintzateke (barreak).

Tallak bateratzia ondo ikusten dozue?

ARTISAU-OGIA okindegia-gozotegia

Otsailaren 15ean
ZABALIK
Bisita gaitzazu!



Urkizu
Pisakelua
14an

Urkizu parkeko
kolumpioen
aurrean

URKIZU, 7 ☎ 943 82 04 94 / 943 12 11 20 Faxa: 943 12 11 40
uthemek@uthemek.com



MEKANIKETARAKO
TRESNAK

SPK- Zeramika, silizioa

ISCAR - Trontzaketa eta fresadorarako erreminta bereziak

ROY - Diamante eta boraxezko harriak



Toribio Etxebarria, 4

“Euskal Herria maitatu zuen Humboldttek”

Juan San Martinen lagun eta kolaboratzailea, Joxe Azurmendik (Zegama, 1941) bere lagunaren izena daraman beka lortu zuen orain hiru urte. Horren emaitza da ‘Humboldt, hizkuntza eta pentsamendua’ liburua, hizkuntzalari eta pentsalari prusiarraren gaineko liburua.

- 2005ean lortu zenuen Juan San Martin beka eta orain aurkeztu duzu ‘Humboldt, hizkuntza eta pentsamendua’ liburua. Nolakoa izan da lanaren prozesua?

Urteak neramatzan Humboldtten gainean lan egiten. Orduan, lan horretan ari nintzela, Eibarko Udalak Juan San Martin beka eskaintzen zuenaren berri izan eta nire lana aurkeztu nuen. Zein izan zen arrazoia? Lan hori egin ahal izateko Parisko liburutegietara joatea behar nuen eta, batez ere, Alemaniakoetara. Horrela, bekaren laguntza hori oso ondo etorri zait liburutegi hauetan lan egiteko. Bestalde, denbora libre hartzeko eta urteetan pilatuta neukan material guzti hori amaitzeko ere ondo etorri zait beka.

- Liburuarekin zer aportazio egin nahi izan duzu?

Gai hau asko lantzen da gaur egun, batez ere beste adar batzuetatik. Burmuinaren ikerketa aldetik, zientzia kognitiboaren aldetik, hori dena abiatu edo indartu da ipar-amerikako Noah Chomskyren linguistikaren ondoren. Chomskyk bere burua Humboldtten jarraitzaile bezala ulertzen du, baina gertatzen dena da, eta oso bitxia da gainera, Chomsky oso modan egon dela eta Humboldt ahaztuta. Humboldttek zer esaten zuen eta bere inguru sozialean, bere garaian eta aurretiko polemiketan zer esaten zen bildu dut, beti gai honi buruz. Humboldt oso aztertua dago, linguistikaren


sortzaile bezala eta abar, baina hizkuntza eta pentsamenduaren arteko loturaren gaian ez dago hain aztertua.

- Hizkuntza eta pentsamendua aztertzen dituzu. Bai Humboldtten aurretikoa, bai gerokoa. Alde handia dago?

Gizakiak daukan arazoa da zer pentsatzen duena esan edo adierazten ez badu, inoiz ez dakigula. Pentsamendura daukagun sarbidea beti hizkuntzatik pasatzen da edo alderantziz, pentsamendua adierazteko daukagun tresna hizkuntza da. Hizkuntza eta pentsamenduaren arteko lotura inoiz ez da zalantzan jarri, ezertan, lotura horren moduak zenbateraino batak beste baldintzatu ahal duen eztabaidatzen da bakarrik. Oraindik ere, filosofikoki planteatzen da, batez ere, ezagutzaren teoriako arazo bezala, baina Humboldttek antropologiatik planteatu zuen gaia. Komunitate bat hizkuntza bat da azken finean, edo hizkuntza horretan adierazten ditu bere sentimenduak, pentsaera, mundu ikuskera eta guzti horiek. Bigarren edo hirugarren fase bat da hori, lehenik Grekoak daude, klasikoak gero, arrazionalistak (Kant eta abar), antropologikoak (Kant ere bai eta Humboldt), eta azken hau da definitiboa modernitatean.

- Prusiarra izanda, Euskararen gainean ekarpen handia egin zuen Humboldttek.

Aristokrata prusiarra izan zen, Euskal Herrian egon zen, Eibarren ere bai, euskara ikasi zuen, nahiz eta ez dudan us-



te euskaraz libre-libre hitz egingo zukeenik, baina hitz egiteko gauza zen, bai umeeekin, bai Markinako baserritarrekin, eta abar. Bera izan da, ez soilik euskara hizkuntzaren azterketan, Euskal Herriaren azterketa antropoliko harrigarri bat egin duena. Bera da Euskal Herria fenomeno interesgarri bezala munduari eza-gutzera eman diona eta, harrezkero, antropologoak eta linguistak interesatu dira, baina bera izan da mundu akademikoari Euskal Herria eza-gutzera eman diona.

- Hiru liburuko sortako lehen liburukia dela esan da. Horrela bada, zergatik kaleratu da azkena?

Behar bada, azkena amaitu dudalako. Liburuak hiru atal ditu, baina neukan materiala oso handia zen eta ez nekien ondo nola banatu. Lehenik argitaratu nuena ‘Espainiaren arima’ da, baina aitortu behar dut nik ez nue-

la nazionalismo espainiarra oso sakon aztertzea nahi. Nik zera planteatu nahi nuen: problema hauek daude eta ez dira inoiz aitortzen. Autore klasikoek hartu nituen, Menendez Pelayo, Menendez Vidal, Ortega y Gasset, Unamuno, Baroja eta abar, eta horietan erakutsi nuen espainiarren arimaren euren kontzeptuak dituen arazoak. Horrela, Unamunoren Bilboko hitzaldi bat jorratzen dut eta Ortegaren historiaren filosofia, oso garrantzitsua delako ohartzea Ortega erabateko arrazista zela. Ez Sabino Arana bezala, hau anti-espainiarra baitzen eta honen arrazismoa sozial-politiko zelako, Ortega historiaren filosofo arrazista bat zen eta hori oso garrantzitsua da, herrialde asko (Asiako eta Afrikako herrialde guztiak, adibidez) kondentatzen baititu historian, kulturalki eta politikoki, ezer egin

ahal ez izatera, eta herrialde hauen barruan Euskal Herria eta Andaluzia, herri primitiboak direlako eta arima primitiboak dutelako. Horrela, ideia honekin, munduko lautik hiru herrialde kondentzen ditu historia gabeko eta morroi herriak izatera.

- 'Volkgeist herri gogoa' da bigarren ilburua. Bertan idela alemaniarra lantzen duzu. Euskal abertzaletasuna alemaniarretik hurbil dago?

Nazioaren kontzeptuak historia luze bat dauka eta nazioaren kontzeptu hori ez da alemaniarra, Frantzia ere berdin eman delako. Gero, nazio hitza estatuaren orde erabiltzen hasi zen, horrela, orain gauza bat da nazio-etnikoa esaten dena eta beste bat estatu-nazioa. Baina hori ez da teoriaren ezberdintasun bat, terminologiarena baizik eta horrek izkututzen dituen interesena ere, eta horregaitik dago Espainian hainbeste arazo. Dena laburbilduz, euskal nazionalismoa ez da alemanagoa, espainola, frantsesa edo aleman bera baino.

- 'Espainolak eta euskaldunak' ilburuan eta halakoe-tan ikusten denez, hain zaila da ulertu gaitzate?

Ba nonbait bai. Espainiak duen tradizio bat batasunaren kontzeptua da eta Fran-



Juan San Martin Bekari esker egindako lana egunean aurkeztu zuen Markeskuan.

tzia ere. Badaude estatu batzuk, erdi-arotik sortu direnak, eta euren kultura eta kontzeptu politikoen aldetik elizatik ikasi dutenak (go-tzaiak izan dira euren juristak eta abar), eta hauek elizaren batasunaren kontzeptua heredatu dute, horrela, ezberdin pentsatzen duena heretiko da. Pluralitatea eta ezberdintasunak onartzeko zailtasunak izan dituzte eta dauzkate, nahiz eta gaur egun aniztasun hori onartzen den, baina hori gehiago da teoria praktika baino eta hauteskunde hauetan ederki ikusten da etorkinei gure ohi-turak har ditzaten behartuz. Azkenean, betiko arazoekin gabilta, ez dugulako aniztasuna onartzen.

- Ematen du, beraz, Humboldttek hobeto ulertu gin-

tuela. Ulertuko gintuzke gaur egun?

Nik uste dut alemaniar batek Euskal Herria oso ondo ulertuko lukeela, baina beste gauza bat da bortxaren erabilketa helburu politikoetarako, hori gaurko alemaniar batek nekez ulertuko lukeelako duten historiarekin. Baina euskal arazoa eta euskaldunak bere buruaren jabe egin nahi izatea batere arazorik gabe ulertuko luke.

- Ez da egongo beste askorik Humboldtten pareko euskaldunekiko.

Ez, ez dago beste halakorik. Humboldt eta Euskal Herriko lurraldeen, paisaien eta jendearen antropologo gisa egin dituen deskribapenak harrigarriak izan dira, nola ikusi, deskribatu eta maitatu izan duen. "Jainkozko lurralde bat da" esan zuen Humboldtnek eta bere bizitzako egunik zoragarrienak Euskal Herrian bizi zituela ere bazioen. Baina horrek ez zuen itsutu, alderdi kritikoak ere dituelako Euskal Herriare-

kiko: gaizki antolatutako lan sistemari buruz, emakumearen lan gogorra, eta abar.

- Juan San Martin bekaren emaitza da hau. Zu bere lagun eta kolaboratzailea izan zinen. Zer orotzapen duzu?

Juan San Martin mirari bat izan da. Ez dakit nola ahal zuen hainbeste informazio lortu, poesia ingelesa lortzen zuen ez dakit nola arraio eta mundu guztiari laguntzen zion, niri ere bai. Adibidez, Gabriel Arestiri lagundu zion, bere etxean hartu zuen, nik ez dakit nori ez zion lagundu. Dena egiten zuen, Euskal Herriko aldiarekin ikertzen ziotuen, dolmenak ere, 'Pirenai-ca' aldizkaria zuzentzen zuen, erakusketak antolatzen zituen argazki-zaleekin (Ojangurenekin eta abar), poetak laguntzen zituen, Arrateko bizikleta igoera antolatzen zuen, zer ez zuen egin gizon horrek? Gainera, dena debekatuta zegoen denbora batean eta beldurra nagusi zen garaian.

“Pluralitatea eta ezberdintasunak onartzeko zailtasunak izaten dira eta betiko arazoekin gabilta, ez dugulako aniztasuna onartzen”

Bigarren urteurrena

IOSU TREBIÑO GARITAONANDIA

2006-II-17an hil zen



Haren aldeko meza hilaren 17an, domekan, ospatuko da San Pio X. elizan, eguerdiko 12.00etan



EIBARKO GAZTIAK AZTERKETA BIKO PROTAGONISTA

Udalak gaztieri eskintzen detsen zerbitzua gaztien errealidadari moldatzeko ahalegiñetan dabiltza eta, horregaitik, errealidade horretara gerturazten lagunduko detsen estudixua egingo dau horrelakuak egitten esperientzia haundixa dakan EDE Fundaziñuak. Eibarko gaztieri moldatutako Gazte Planak 15 eta 25 urte bittarteko gaztiak eukiko dittu kontuan. Oin momentuan, Eibarren 2.690 neska-mutil dagoz adin tarte horretan eta azterketa egittiaren arduria dakenak gaztien gustu, kezka, premiñak, lehenetasunak eta bestelakuak jasoko dittue, batez be aisialdiari begira, baiña gaztieri zuzenian eragiten detsen beste kontu batzuk baztertu barik. Holan aisialdirako aukerak, kultur-jarduerak eta kirol-jarduerak izango dittue kontuan azterketan. Horrez gain osasun kontueri be eskinduko detse arreta, bestiak beste ohitura osasuntsuekin, kontsumo arduratsuekin eta drogomenpekotasunekin zerikusixa daken gaixeri erreparatuz. Bestalde, gaztiak gazte izate hutsagaittik ez dau esan nahi talde homogeneoa osatzen dabenik eta gaztien artian dagoen aniztasuna azterketan islatuta geratzeko ahalegiña egingo dabe, gaztien partehartziari eta alkartasunari tartia eskinduta. Eta gaztien kezka haundixetako bat ez dabe

Eibarko gazterixia hobeto ezagutzeko asmuarekin, Eibarko Udalak EDE Fundaziñuari Gazte Plana enkargau detsa. Helburua 15 eta 25 urte bittarteko gazte eibartarren errealidadera gerturatzia da, euren gustuak, premiñak eta bestelakuak hobeto ezagutu eta hobeto erantzun ahal izateko. EDE-k egindako plana etorkizunian udalbatzan onartzia da asmua, gerora aplikatzen hasteko. Ez da hori herriko gaztien gaiñian martxan dagan azterketa bakarra, Juan San Martin bekaren azken ediziñoko irabazliaren proiektuak be herriko gazterixia ardatz dauka-eta.



EKHI BELAR

ahaztuko: emanzipaziñua eta, horri lotuta, lana eta etxebizitzaren inguruko gaixak jasoko dittue Gazte Plana diseiñatze-ko orduan.

Bestalde, etorkizunerako zelako herri-eredua nahi dabena- ren inguruko ondorixuak etar-ko dittue EDE Fundaziñokuak, horretarako herrixaren jasan- garritasunaren, garraiobidien, ingurumenaren eta bestela- kuen gaiñian gaztiak daken ikuspegixa jasota. Informaziño eta komunikaziñorako atal bat eukiko dau planak.

Hezitzaillien ikuspegixa

Gaztiak ez eze, gaztiekin dihardutenak be hartuko dabe parte ikerketan. Horretarako modu profesional zein bolun- tarixuan gaztiekin lan egitten dabenekin egongo dira Gazte Planeko arduradunak. Hortxe sartuko dittue herriko ikaste- txiekin egindako diagnostikua eta hezkuntza eredu ez forma- letako hezitzailliekin eztabai- darako taldiak eratzia aurreiku- si dabe. Taldietako batzuetan hezitzailliekin batera ikasle ba- tzuk be hartuko dabe parte.

Arlo horretan modu iraunko- rrian biharrian jarduteko foro bat sortzeko asmua be badake, alkartien, gaztien, gaztiendako erreferente diranen eta intere- sa daken bestelako lagunen partehartziarekin.

Aisialdixa aztergal

Aittatutako arlo guztietako datuak jaso eta gero, EDEko teknikarixak proposamenak planteauko dittu aztertutako ataletako bakotxerako. Behin dana aztertu eta sailkatu ondo- ren, zirriborrua aurkeztuko de- tse Udalbatzari, ondo begittan- tzen bajako Gazte Plana onartu eta hor jasotakuak martxan ipintzen hasteko.

EDE Fundaziñuak aurretik be egin dau biharra Eibarko gazte- rixaren inguruan, Udalak hala eskatuta. Aurreko ikerketa bat- tian Eibarko gaztien zaletasu- neri erreparatu zetsen batez be. Azterketa horren arabera, asteburuko aisialdixan toki haundixa betetzen dabe lagu- nekin egoteko lokala lortziak eta teknologixa barrixak. Au- rreko ikerketa 14 eta 20 urte bi- ttarteko gaztien inguruan egiñ eben eta batez be aisialdixan zentrau ziran. Oiñ enkargau da- ben plana askoz be osotuagua izango da eta askoz be arlo gehixagori erreparatuko detse.

Inkestak eta alkarrizketak

Azterketa barriko ondorixo eta datuak aillegau bittartian,



**San Andres
Gozotegia**

- tartak
- enkarguak etxera

Bidebarrieta 28
☎ 943 20 79 73

**EMAKUME ETA GIZON
MODA**

Valenciaga BEHERAPENAK
Konfekzioak

☎ 943 20 22 33 Zuloagatarren, 7

LEIRE ITURBE



aurreko azterketako datuak herriko gaztien perfillaren ideia bat egiteko lagungarriak dira. Estudixuaren arabera, astian zihar gaztien aisialdixa batez be konsumuarekin lotuta agertzen zan. Kirola, barriz, konsumuaren atzetik bigarren mailla batian geratzen zan. 14 eta 17 urte bittarteko mutilen artian jarduera nagusixa kirola ei da, baiña adiñ horretatik aurrera kirolari gero eta denpora gitxiago eskintzen doiaz, beste jarduera batzueri tokixa egitten juateko. Eta nesken kasuan, berri, adin tarte horretan konsumua nagusi izan arren, nagusitzen doiazan neurrixan eskolaz kanpoko jarduereri eta ikasketeri arreta haundixagua eskintzen detsela ikusi eben.

Datuak lortzeko herriko gaz-

tien artian 300dik gora inkesta egin zittuen: 121 inkesta herriko toki estrategikuetan 18 eta 20 urte bittarteko gaztieri egin zetsazen eta 186 inkesta, barriz, 14 eta 17 urte bittarteko ikaslieri egin zetsazen Aldatzen, Armeria Eskolan, Ignazio Zuloaga institutuan, Itzion, Azittaingo La Sallen, Mogel Isasin eta Uni Eibar-Ermuan. Horrez gain hainbat eztabaida talde osatu zittuen, eta horietan berba egindakua be erabilli eben azterketa osatzeko.

San Martin beklia be gaztien galfilan

Lan egiteko modu hori nahi kozabalduta dago gaur egunian ikerketa antropologikuak egiteko orduan. Izan be, Juan San Martin ikerkuntza bekako azken

Gaztiak hobeto ezagututa, eurendako eskintza aproposagua diseñau nahi dabe



ANAITIA IAGO

irabaztiak be eztabaida taldietan oiñarrituko dau bere ikerketa. Aitzol Loiola debarrak be Eibar-ko gaztien gaiñeko ikerketa garatuko dau 2007ko ediziñoko bekiari esker: 'Gaztedia Eibar herriaren giza eraikuntza-eraldakuntzan' izeneko proiektuan 16 eta 30 urte arteko eibartarren errealidadia aztertuko dau soziologuak, herrixan daguezen talde diferentien errealidadiar begiratuta. Horrekin amaitzen dabenian, ikerlarixak banakako eta taldekako alkarrizketak egiteko asmua dauka, gaztien lan egiteko moduak, motibaziñuak eta dittuen helburuak zeintzuk diran jasotzeko helburuarekin. Taldekako alkarrizketak egiteko orduan, talde txixixak egiteko asmua dauka, ondorixuak etartzeko orduan aberasgarriaxagua izango dalakuan. Duda bari, urtebeteko epian Loiolak bere ikerketia amaitzen dabenian, hortik etaratako konklusiñuak balixo haundixuak izango jakoz Udalari, EDE Fundaziñuak etaratako ondorixuak osatzeko eta, azken batian, gaztien errealidadera gerturatzeko. Holan gaztien premiña eta helburuekin bat datorren eskintza osatu ahal izateko informaziño baliagarrixa batuko dau Udaleko gazte buleguak.

Helbide berria

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04

- | | |
|---------------------------|---------------------|
| 1 Kardiologia | 8 Pediatria |
| 2 Zirugia | 9 Psikiatria |
| 3 Dermatologia | 10 Radiologia |
| 4 Dietetika eta Nutrizioa | 11 Traumatologia |
| 5 Análisi Klinikoak | 12 Barne Medikuntza |
| 6 Ortodontzia | 13 Alergologia |
| 7 Otorrinolaringologia | 14 Koloproktologia |

EGOITZA NAGUSIA

Bidebarrieta 20 - behea

FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del
Bajo y Alto Deba

- Tanatorioa eta Errausketa labea
Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urteurrenoko eskelak
- Euskal Herri osoko ospitaletan hartzen zaitugu
- Nazio eta Nazioarteko trasladoak

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

teen-ajeak



*Asier Iriondo
21 urteko foballaria da.
Iaz Eibartarrak-ekin
mailar igo eta gero,
Eibar B-n dabil aurtan.
Aterain moduan hasi
zen foballean, baina
orain defentsa da.*

“Igoerako play off-a jokatzeari espero dut”

- Foballean izan duzun ibilbidea bitxia izan da.

Bai. Hasieran atezain moduan ibili nintzen Eibarren, baina errugbia egiteko lagatzen nuen. Denbora batera, Eibarrra itzuli nintzen, foballera berriz ere, atezain moduan, baina ondoren Eibartarrakera joan nintzen jokalaririk bezala, defentsa postuan. Talde horretan egon naiz aurtan Eibar B-k fitxatu nauen arte.

- Iaz Eibartarrak-ekin mailar igo izateko zuretzat zaila izan da. Iaz Eibar B-rekin 2. zaurduta. Igoerako play off-a jokatzeari espero dut.

Oraindik, 45 puntu lortu arte mailari eustea da gure hel-

burua. Behin hori lortuta, ikusi da ea zer egin ahal duzun. Espero dut play off-a jokatzeari, baina ikusi behar da.

- Malla pertsonalean nolako denboraldia dharduzu egiten?

Denboraldi hasieran jokatzeari hasi nintzen, baina gero min hartuta egon nintzen. Hala ere, lesiotik bueltan berriro jokatzeari hasi naiz eta 14 partidua jarraian daramatzat titular.

- Lehen taldean jokatzeko aukerarik ikusten duzu?

Ez, ez dut hortan pentsatu ere egiten. Aurtan Eibar B-n nago zentratuta eta ez dut bestelakorik begiratzen.

Itzio garaile Narruzko Zezen sarietan

Txema Cornago Eibarko antzerki jardunaldietako antolatzailetariko batek esan zuen bezala, “antzerkia arnasten da Eibarren”. Gure herritik estatuko eta estatu kanpoko antzezle famatuena pasatuko dira hurrengo asteotan. Antzezleez gain, antzezialan ere goi-mailakoak izango dira. Autore klasikoek sor-

tuak, modernoak batzuk, berriak besteak, maisulanak asko. Autore horien bide bera egin nahi du eibartar gazte askok ere eta horretarako gauza bi besterik ez dira behar: arkatza eta papera.

Itzio ikastetxea izan da Narruzko Zezen sarietan 23. edizioko garaile nagusia. Zentru horrek lortu zuen sari nagusia, baina, horrez gain, beste hamabi sari jaso zituzten ikastetxe horretako ikasleek. Zerbait historikoa lortu zutela esan daiteke, zaila baita ikastetxe bateko ikasleek ia sari guztiak eskuratzea.

Euskarazko antzerki-artikuluaren ‘A’ sailean lehenengo saria Arantza Parejak, Itzioko ikasleak, lortu zuen ‘Narruzko zezen’ izeneko lanarekin eta 90 euroko saria jaso zuen. Sail berean Itzioko Be-



Hitzaldia eman zuen Manuel Galliana aktoreak banatu zituen sariak.

HOROSKOPOA

ARIES

Ikasketak ez doaz ondo, ezta? Lasai, sasoi txarra da eta ez larritu; laister bide ona hartu eta emaitzak hobetuko dituzu-eta! Ordura arte, gogor lan egin, bestela egoera txarrera joango da. Eta erremedioa aurkitzea zailago.

TAURUS

Beti berandu. Ohera berandu, berandu altsatu, lagunengana berandu... ez duzu inoiz ikasiko ala? Probatu al duzu ordularia piskat bat aurreratzea? Ea horrela, behingoz, zita batera garaiz iristen zaren!

GEMINI

Nora joango zara Aste Santuan? Norabaitera joateko asmoa badaukazu, aurrezten hasi beharko zinateke; bestela, komeriak! Hala ere, ez pentsa oso urrutira joan ahal zaitezkenik eta, bestela, herria zaintzera!

CANCER

‘Kupela, kupela...’, txurrutean egitea gustoko duzu, Cancer maitea, eta, neurri batean, ondo egiten duzu. Hala ere, gogoratu sagardoak buruko mina sortzeko abilezia duela. Tira, joan zaitez ‘txotx’ egitera!

LEO

Zure bizitzak aldaketa bat behar du eta aste hau aproposa da horretarako. Sasoi txarrak albo batera laga eta ilusioz beteriko beste bat hasteko aukera izango duzu; beraz, adi egon zaitez eta ez ezazu trena galduta.

VIRGO

Edozergaitik egiten duzu barre eta, askotan, jendeak ez du ondo hartzen zure jarrera. Barre egin behar denean barre eta, bestetan, ixilik egon, hobe duzu. Bestela, norbaitengandik zaplastekoa jasotzeko aukera daukazu.

LIBRA

Pilak berrituko dituzu aste honetan eta inoiz baino gehiago izango duzu berriketarako gogoia. Normalean isila zarenez, ingurukoak harriduta egongo dira zurekin, baina baita gustorago ere. Ea zenbat irauten duen.

SCORPIUS

Zalantzak izango dituzu zure sentimenduekin; izan ere, pertsona bi dituzu gustoko eta ezin duzu bakarrik aukeratu. Jarraila zure bihotzak zehazten dizun bidea, hori izango da-eta bide zuzena. Ez izan beldurrik.

SAGITTARIUS

Karabin, karaban; ikusi makusi... gogoratzen umeetako jolasak, ezta? Sasoi polita zen, inolako kezkarik gabe eta beti jolasean. Umetasun kutsu bat daukazu zuek ere eta hori ez duzu inoiz galduta behar. Segi horrela!

CAPRICORNIUS

Zer esango dizut ba, Capricornius maitea! Izarrek ez dizute aste ona iragartzen; nahiko ilun egongo da dena. Ekonomia aldetik izan deza kezku alaitasun gehiago, ez baitaizazu dirurik faltako-eta. Bestela, hobe ohean geratu!

AQUARIUS

Zu kirola egiten? Noiz ikusi da hori? Hala ere, zorionak, zure osasunaz arduratzen zarelako. Geldirik egonez gero, nagusiago zarenean aurretik egindako gehiegikeriak jasango dituzu. Mens sana in corpore sano!

PISCIS

Gurasoek eta aita-amaiek beti hartu zaituzte euren umetxo bezala, nahiz eta 40 urte izan horrela jarraituko duzu, beraz, pazientzia izan eta ulertu itzazu. Argi izan zu ere horrelakoa izango zarela, seguru!



LEIRE ITURBE

Sari nagusia jasotzeaz gain, beste hamabi sari ere lortu dituzte aurten Itzioko ikasleek.

ñat Fernandez izan zen bigarrena 'Antzerkia' lana aurkeztuta eta 40 euro eskuratu zituen honek. Euskarazko artikuluen atalean, baina 'B' sailean, Itzioko Eva Hervasek irabazi zuen 'Antzerkiarekin dudan erlazioa' lanarekin eta 110 euro jaso zituen.

Euskarazko antzerki-gidien 'A' sailean Itzioko Maria Zabaloren 'Etxea hankaz gora' lana izan zen lehen saria jaso zuena eta 150 euro jaso zituen Mariak. Itzioko Alaitz Aiarzak eta bere 'Bazkalordua' lanak, berriz, bigarren postua eta 75 euro lortu zituzten. Akzesita, berriz, Teresa Agirregomezkortak lortu zuen 'Maitasun kontuak' lanarekin, Itziokoa hau ere, eta 75 euro eskuratu zituen.

Maria Zabalo garalle bilkoltza

Shifa Jebari izan zen gaztelarazko antzerki-artikuluen 'A' saileko garailea eta 90 euro lortu zituen horregaitik. 2.a Borja Kruzelaegi izan zen 40 euro lortuta eta 3. Ruben Santos 30 euro boltsikoratuz. Hiru hauek Itzioko ikasleak dira eta euren lanen izenburuak berdinak ziren: 'El teatro'.

Antzerki-artikuluen 'B' sailean Maria Zabaloren 'A ti' izan zen lan irabazlea. 110 euro irabazi zituen Mariak eta euskarazko mailan lortutako garaipena errepikatzen zuen, horrela, Itzioko ikasle honek. Patricia Crespo geratu zen 2. postuan 'Memorias de una baldosa' lanarekin eta Itzioko-

ak 50 euro lortu zituen horregaitik. 'C' sailean, berriz, lehen saria hutsik geratu zen, baina bigarrena Miren Oteizak lortu zuen 'Tristes y cansados' lanarekin, eta honekin batera 65 euro.

Gaztelarazko antzerki-gidien 'A' sailean Itzioko Ainhoa Lopezek irabazi zuen 'Gran movida en el mejillon' lana aurkeztuta eta bere saria 150 eurokoa izan zen. Akzesita eta 50 euro, berriz, La Salleko Ander Garciaek lortu zituen 'El pozo de las lamentaciones' lanaren bidez. 'B' sailean, bestalde, Carlos Ruizek eraman zuen sari handiena, horrela, bere 'No son mas que matices iluminados' lanak 185 euro lortu zituen.

Ei Gazte! logotipoa diseinatzeko lehiaketa

Eusko Ikaskuntzaren Gazteria Sailaren irudi adierazgarria izan den logotipoa diseinatzeko lehiaketa martxan dago. 16 eta 30 urte bitarteko gazteek har dezakete parte lehiaketan. Antolatzaileek "diseinu berria, oraingoa eta praktikoa" bilatzen dute eta 'Ei Gazte!' esaldia integratu beharko da diseinuan, nahi den letra motarekin, kolorearekin eta neurriarekin. Maiatzaren 15era arteko epea dago lanak entregatzeko eta irabazlearentzat 1.500 euroko saria dago. Lehiaketan parte hartzeko bete beharreko baldintzak eta bestelako azalpen guztiak Eusko Ikaskuntzaren webgunean kontsultatu daitezke (www.eusko-ikaskuntza.org).



Popatik gramatika!

Hamasei urte dattu, eibartarra da eta izen euskalduna daka. Bere aitta Miguel da. Bera, Mikel. Mikelek ez dau sekula Gaztekitto leitzen. Ez daki euskaraz. Ez jako sekula interesau. Luze eñ geinke berba bere jarreraz. Aztertu geinke zelan dan hain erdal-duna hemen jaixo, hezi ta bizi dan bat. Kritikatu geinke Mikelen interes falta, baiña "Mikel" asko dago gure herrixan. Zer pentsau emon biharko leuke.

Mikelek eredu "elebidunian" estudiatu dau. Euskarara, berandako, ez da hizkuntza bat. Irakasgai bat da, latina izan leiken moduan. Mikelek gogor estudiatzen dau euskara. Astero hiru ordu pasatzen dattu euskara klasietan gauza interesantia estudiatzen: gramatika eta ez-dakit-zé aditz-taula. Datorren astian memorizatutako guztixa azterketa baten botako dau. Hor geratuko da dan-dana, papelian. Burua hustuko dau eta ez jako euskararen arrastorik ere geratuko. Klasiak ez dau Mikel euskarara hurbildu. Mikelek hesixak sortu dattu bere inguruan: euskara zaila da eta ez detsa ezertarako balixo. Eta arrazoa daka, oraiñ arte erakutsi detsenak ez detsa ezertarako balio. Erregian aurpegixa (holan esaten ei jako Eibarren ipurdixari) garbitzeko bez. Hori-xe, ba: popatik gramatika.

Josu Mendikute

Eibar B igoera faseari begira

Azken jardunaldian ezin izan bazuen irabazi ere, Eibar FT-ren bigarren taldea sailkapeneko 2. postura igo da eta 2. B mailara igotzeko fasea jokatu dezaketen taldeen artean dago. Une honetan, 41 puntu dituzte eibartarrek eta bigarren dira, hori bai, beste lau taldekin berdinduta; talde horien artean dago denboraldi bikaina

egiten diharduen Azpeitiko Lagun Onak ere eta asteburuan euren arteko partidua jokatuko dute Azpeitian. Azken jardunaldian, eibartarrek bana berdindu zuten Unben Zarautzekin, baina urtarrilean garaipe bat bestearen atzetik lortu zuten (tartean Zalla liderraren zelaian eskuratutakoa) eta sailkapeneko goi aldera egin zuten jauzia.



Garaipen garrantzitsua Preferenteko Eibartarrak-entzat

Preferenteko ligako azken postuetan sailkatutakoen norgehiagokan, Eibartarrak-ek 1-0 irabazi zion Unben Renteriako Touring taldeari eta, modu horretan, orretarrak gainditu eta Zumaia-ko hartu du sailkapenean. Orain puntu bakarrera dute Zestoa eta hiruzpalaura beste laukote bat.

2. Erregionalean, bestalde, igoerako eta Kopako faseak hasi dira asteburuan. Igoerakoan Gazteak da gure herriko ordezkari bakarra eta 1. jardunaldian

bina banatu zuen Ostadarren zelaian. Igoera faserako sailkatu ez zirenen arteko Kopako torneoan, bestalde, Eibartarrak B eta Urkiren arteko partidua jokatu

zen, Eibartarrak-ekoen aldeko 4-1eko emaitzaz. Hurrengo jardunaldian Urkik Segura hartuko du eta Eibartarrak-ek Ikasberriren zelaian jokatuko du.



Eibartarrak-ek laz lortu zuen Preferente mailara igotzea, denboraldia lider moduan amaituta.

Foball-zaletuen txapelketa hiruko gauza da

Azken jardunaldian Durangok Azitaini sartutako 4-0koarekin, txapelketa irabazteko hautagai bat bidean gelditu da honezkerok eta hemendik aurrera hiru taldeen arteko lehia ikusiko dugu. Durangok, eskuratutako garaipe errazarekin, lidergoari eusten dio eta puntu bira ditu Teknografik eta Jose Autos taldeak: Teknografik-ek astindua eman zion Vivaldiri (10-1) eta Jose Autos larri ibili zen Areto makurrazteko (1-0).



Waterpolistek 11-7 galdu zuten Sestaon

Urbat-Urkotronikeko waterpolistek ezin izan zuten, batez ere, Sestaoko atezainarekin eta, azkenean, amore eman behar izan zuten bizkaitarren aurrean. Atsedenaldira 7-1ekoarekin joan ziren talde biak eta, gero eibartarrak gehiago izan baziren ere, ezin izan zioten markagailuari buelta eman. Iñigo Etxeberriak hiru gol eskuratu zituen, bi Migel Pérez Valenciagak eta bana sartu zituzten Ibai Ulaziak eta Iñigo Gonzálezek. Asteburuan Barakaldo hartuko dute eibartarrek Ermuan.

Bihurri munduko markaren bila

Ernesto Ezpeleta Eibarko aizkolaria marka berria ezartzen ahaleginduko da martxoaren 2an Berrizen egingo duen erakustaldian. Lehen ere perimetro handiko enborrekin ausartu bada ere, oraingoan esku bakarrarekin saiaturiko denez, lan nekezagoa izango du eta meritua ere maila berekoa izango da. Orain arte inork egin ez duen erronka hartuko du Bihurrik 2'50 metroko perimetroa izango duen enborra moztetari ekiten diotenean. Hemendik hamabost egunera izango da saioa, Berrizen, eguerdiko



13.00ean hasita eta hor munduko marka berria lortzen ahaleginduko da. Aurretik ere badu beste

bat, pago egurreko 5 metroko perimetroko enborrekin lortutakoa: 3 ordu, 7 minutu eta 48 segundo; marka horretan ia bost mila aizkorakada eman behar izan zituen, 4.797 hain justu. Iaz Madrilen egindako erakustaldi baten izandako istripuak behartu zuen Eibarko aizkolaria esku bakarrarekin entrenatzera eta hortik etorri da hemendik gutxira egingo duen saioa errealitate bihurtzea. Berak dioenez, "sasoian olean aurkitzen naiz eta, lan oso gogorra izango dela jakinda ere, marka lortzera noa, sinisturik".

Deporreko xakeko talde biak lidergoan

Oraingoan ere ez zen jardunaldi osoa izan, baina jardunaldi amaieran talde biak bakoitzaren sailkapeneko goienera sailkatu dira. 1. mailako taldeak 1-3ko garaipen garbia lortu zuten Donostian, Gros E taldearen aurka. Diego Olmok (Josean Irulegi football entrenatzaile-ohiari), Edu Olabek eta Haritz Garrrok irabazi egin zuten eta

Manuel Lópezek, partida bere alde izan arren, galdu egin zuen azkenean. Beste emaitzek lagundu ziotenez, lidergoan kokatu dira eibartarrak, 14 punturekin, puntu erdira Gros C eta Billabona dituela. Bihar, 16.00etatik aurrera, Azkoitiko Anaitasuna-Kakute hartuko dute eibartarrek Deporren.

3. mailako Klub Deportiboko taldeak, bestalde,

3-1 galdu zuen Tolosan bertako taldearen aurka; taldea A. Arrotauregik, M. Baenak, B. Belarrek eta A. Egurrolak osatu zuten. Sailkapeneko liderrak atsedena zuenez, Eibarko taldea da orain lider berria 13'5 punturekin eta atzetik ditu, puntu eta erdira, Tolosa eta Elgoibar. Asteburu honetan eibartarrak izango dira atsedena hartuko dutenak.



Asteburu bateko kontua bada ere, Deporrek talde biak lidergoan daude une honetan.

Arrate B-k Avilesinarekin galdu

Lehenengo Nazional mailako eskubaloi taldeak Avilesinarekin galdu zuen Ipuruan azken jardunaldian (22-26) eta sailkapenean, goiko aldean jarraitzen badu ere, postu bat atzeratu du. Partidu zailak izan zituzten ere Euskadiko txapelketan diharduten jubenil eta kadete mailako taldeek, biak ere Egiaren kontrako partiduetan: jubenilak Egian irabazteko gauza izan ziren (35-37), baina kadeteek 33-29 galdu zuten. Jubenil mailako nesken taldea erraz nagusitu zitzaion Grosekori (23-7) eta, infantil mailako taldeei dagokionez, mutilen taldeak 19na ber-

dindu zuen Toki-Alairen zelaian eta 22ra Leizaranenean. Nesken taldeak ere berdinketa lortu zuen Leizaranen (7-7) eta porrota jaso zuen Zumaian, Pulporen aurkako norgehiagokan (21-7).



Aste honetan, inprentak hala aginduta, astekaria egun bat lehenago bidali behar izan dugunez, Asobal Ligako Arrate eta Ciudad Realen arteko partidua jokatzeko zegoen lerrook idazterakoan.

Binakako partidu erabakigarria Astelenan

Koka-Begino eta Xala-Pascual, nor baino nor jardungo dute domeka arratsaldeko pelota jaialdiaren partidu nagusian bikote biek, jakinda galtzen duenak aurtengo binakako txapelketari agur esango diola. Une honetan sei



bikote daude hiru posturako eta domekako bigarren partidu horrek ia-ia bat sailkatu eta bestea kanporatzeko balio dezake.

Jaialdia hasteko, Capellán eta Eulatek Olazabal eta Goñi III.aren kontra neurtuko dituzte indarrak, laurak ere askotan estelarretan parte hartzen dutenak. Eta Astelenan domekan izango den azken partiduan, Díaz eta Mendizabalek Uriarte eta Galartza VI.a izango dituzte aurkari.

Herri Irratia Eibar
Loyola Media

NASTIC - S.D. EIBAR
Jarraitu partidua:
Borja Rodríguez
eta **Herri Irratiko**
kiroletako taldearekin
Otsailak 16 zapatua, 18.30etan

90.7 Fm



Montecarlokoei omenaldia

Holkek eta Beorlegik Montecarloko Rallyan eskuratutako 6. postuak oihartzun handia izan du eta Escuderia Eibarrek nazioarte mailan izandako lorpen handiena bezala hartu dute eskuderia-

ko partaideek. Astelehen gauean Kerizpe Soziedadean bildu ziren lortutako emaitza behar den moduan ospatzeko eta datorren urterako asmoak ez dira gutxiagokoak izango, garaipenaren bila joango dira-eta.

Deporreko eskiatzaileak Euskadiko txapelketan

Aurreko zapatuan iraupen eskiko Euskadiko errelebo mistoko txapelketa izan zen jokoan Candanchun eta gure herriko talde biak 3. eta 4. postuetan amaitu zuten. Lasterketa hiru kilometro eta erdikoa izan zen eta Zigor Garcia, Naia Carballo eta Roberto Izagirrek osatutako Eibar A taldeak brontzezko domina eskuratu zuen; bere atzetik sailkatu zen Eibar B taldea, Jesus Telleriak, Leire Garatek eta Arkaitz Iruretak osatutakoa. Egun berean Salomon SPK Freeski proba izan zen jokoan Formigalen eta bertan Txomin Osorok 1. postua eskuratu zuen kategoria berdean, Terrain Park-ean.

Hurrengo egunean, domekan, II. Donostia Trofeoa jokatzen Somporten, hau ere iraupen eskikoa. Postu onenak emakumeen arloan lortu zituzten Deporreko eskiatzaileek; horrela, Naia Carballo 3. postuan amaitu zuen, Leire Garate 7.a izan zen eta Evelyn Schulze 11.a, 16 kilometroko lasterketan. Nesken mailako 10 kilometrokoan, Amaia Garate 14. postuan sailkatu zen. Eta, azkenik, gizonezkoen mailan, Zigor Garcia 21.a izan zen, bere atzetik sailkatuz Jesus Telleria (31), Roberto Izagirre (39), Javier Carballo (42), Igor Aldalur (52) eta Luis Mari Garate (53).



Hierros Anetxek Atletico SS liderra jasoko du Unben

Unbera igo zen gutxi espero izango zuen Eibar Hierros Anetxek Santanderreko Independienteren aurka galduko zuenik. Baina horrela izan zen. Partida amaitzen zegoela hutseko emaitza erakusten zuen markagailuak, baina kantauriarrek 3 puntu lortu zituzten drop bati esker eta 0-3ko emaitza utzi zuen markagailuan.

Eibartarrek Atletico San Sebastian liderra jasoko du zapatuan Unben. Azken jardunaldiko emaitzak lidergoa lortzea ia ezinezkoa bihurtu du, baina hori lortu nahi izanez gero, donostiarrei 17 puntugaitik irabazi beharko diete armaginek. Neurketa honetan, bestetik, klubak euren zaleen berotasuna eskertu nahi izango du. Horretarako, bazkideen artean



afari bi zozketatuko ditu eta Unbera igotzen diren zaletu guztien artean otar eder baten zozketa egingo da.

Eibar Rugby taldeko kadeterek, bestetik, 51-0 irabazi zioten UPV-ri. Eta infantilek, bere alde, neurketa bi jokatu zituzten Zarautzen Ordizia eta Irunen aurka, eta biak galdu zituzten.



Nastic-Eibar biharko

Eibar KE-k Tarragonako Nastic-en aurka jokatuko du bihar 18.30etatik aurrera (ETB 1) Nou Estadi football zelaian. Manixen mutilek aurreko domekan Ipuruan Celta talde indartsua 2-1 garaitu eta gero, jaitsiera postuetan dagoen talde historiko bat izango du aurrean oraingoan.

Codinak, denboraldi bikaina egiten ari den jokalarikataluniarrek, bere talde ohiaren aurka jokatuko du bihar. Sei denboraldi eman zituen Tarragonan Codinak eta bertan le-

hen mailara igotzea lortu zuen. Beste kataluniar batek, Jose Zamorak, talde armaginarekin debuta egiteko aukera izan dezake. Zamora urtarrilean etorri zen Eibarrera Espanyol B taldetik.

Celtaren aurka gola sartu ostean txartel horia ikusi zuen Goiriak. Horrela, Eibarrek errekurtsoa aurkeztu zuen Lehiaketa Batzordearen aurrean eta, onartua izan zenez, txartel horia kendu zioten Goiriari. Beraz, Amorebietako aurrelariak txartel hori bi izaten jarraitzen du.

Euskaldunak AMERIKETAN ARTZAIN

Sarritan egiten dugu berba euskal diasporaren inguruan eta, euskaldunak munduko ia bazter guztietara ailegatu baziren ere, etorkizun hobea baten bila Ameriketara alde egindakoak ez ziren gutxi izan. Hara ailegatzean orotariko lanetan jardun bazuten ere, artzaintzaren munduak euskaldun asko erakarri zuen kontinente berrian, agian hara abiatutako askok baserri giroan eskarmentu handia zutelako. Edozein modutan ere, 50eko eta 60ko hamarkadetan gazte euskaldun asko Ameriketara artzain joan zen eta, handik bueltan, euren esperientziaren berri eman digute. Lanbide gogor horretan jardundako askok zahartzaroan jasotzen dihardute ondo irabazitako errekonozimendua.


Sorteria lagatzen duten guztiek beazala, Ameriketara artzain joandakoek ere etorkizun hobea bila ekin zioten bidaia luzeari, sasoi hartan Euskal Herriko herri askotan zegoen miseria eta pobreziatik ihesi. Fermin Zelaieta horietako bat izan zen: Iruribietakoetxeako (Sunbilla, Nafarroa) artzain honek 1958ko urtarrilaren 7an laga zuen sorteria Ameriketako abenturarekin bat egiteko, inguruko beste gazte askok egin zuten bezala. Zelaietaren etxean bertan beste hiru anaik haren pausoei jarraitu zioten handik denbora batera. Zelaietak gogoratzen duenez, *“miseriatik ihesi gindozan, ez zitzaigun ardura gogor lan egin beharra eta, behar izanez gero, larrua horretan lagatzea, bizimodua modu zintzoan aurrera atera nahi genuelako eta horretarako aukera bakarra hori zela ikusten genuelako”*.

Fermin Zelaieta eta Jose Mari Arretxea, beste batzuekin batera, ‘Sunbildarrak Ameriketara (1898-1993)- Sunbilla, pueblo de emigrantes’ liburuiko protagonistak dira. Liburuak Bidasoaldeko herri horretako 313 bizilagunek Ameriketara bizi zituzten pasadizoak jasotzen ditu, euren berbetan.

Euskaldunek Atlantikoa zeharkatu zuteanean, Amerikako Estatu Batuetan abelgorrien produkzioa goreneko puntuan zegoen, batez ere Mendebaldeko kostan eta, horri esker, dirua egiteko ateak zabaldu zitzaizkien euskaldun askori, txikitatik baserrian ikasitakoari probetxua aterata. Ipar Amerikara lanera joandako euskal artzainek oso gustura laga zituzten hango arrantxoetako ugazabak eta berehala hasi ziren euskal artzaiak eskatzen hango lanetarako.

Zuzeneko testigantzak ILLUNABARRIAN

Otsailerako ...eta kitto! Euskara Elkarrekin antolatutako ekitaldien artean, euskal artzainen esperientziaren ingurukoa dago. Illunabarrian programaren barruan, otsailaren 27an Fermin Zelaieta eta Jose Mari Arretxea ...eta kitto! Euskara Elkarrekin egongo dira, 19.00etatik aurrera euren esperientziaren berri emateko. Euren azalpenei laguntzen irudiak eskainiko dituzte. Betiko moduan, sarrera libre izango da eta gaiari interesa duen jende guztia ongi etorria izango da.



Oztopoel aurre egiten

Behin hara ailegatuta, artzainen lana ez zen erraza: artaldeek sarritan 2.000 ardi baino gehiago izaten zituzten. Iparraldean, udaberriarekin batera, mendialdera joaten ziren artzainak eta ia urte erdia goiko zelaietan igarotzen zuten. Neguan handik jaitsi egiten ziren, arkumeak jaio eta hazteko sasoirako. Normalean artzainak binaka joaten ziren: bata artaldeaz arduratzen zen eta besteak, berriz, basoko lanak egiten zituen. Hegoaldean, berriz, mendiak askoz ere bajuagoak zirenez, artzainak karabane-tan mugitzen ziren eta lana piskat arinagoa izaten zen.




Oztopo askori aurre egin behar izan zioten hara joandako euskaldunek: familia eta lagunak urruti egoteari hango hizkuntza ez jakitea gehitu behar zaio. Gainera, hango gizartea hemengoarekin alderatuta erabat ezberdina zen eta lanbideak berak zekarren bakardadearekin ohitu behar zuten. Hala ere, Artzain Mundua elkarteak dituen datuen arabera 1.000 lagunetik gora ibili zen artzain Ameriketara eta euren jardunarekin euskal kultura diasporan zabaltzen lagundu zuten.

Otsailak 15, barixakua

COMPañÍA CUARTA PARED (MADRIL)

Antzezleak: María Antón, Frantxa Arraiza, José Melchor, Javier Pérez-Acebrón, Asu Rivero, José Sánchez
Zuzendaritza: Javier G. Yagüe



Hezkuntza Esparruan

Rebeldías posibles


Gizon batek telefono enpresa bati erreklamatzeko dizkio lapurtutako zentimo apur batzuk. Enpresak bezeroa zorabiatu nahi du, honek asper-asper eginda bere kexa ahaztu dezan.



Otsailak 16, zapatua

TEATRO GORAKADA (BIZKAIA)

Manipulatuak: Oihane Enbeita, Miren Gaztañaga, J. Cruz Gurrutxaga
Zuzendaritza: Jokin Oregi



Coliseoan



Coliseoan

Senegaleko ipuin bateko pertsonaia nagusi bat aitaren bila dabilen neskatu brasildar batekin, euren zalantza eta beldurrak elkarri jakinaraziz; Zeelanda Berriko ipuin tradizional bateko ume bitxia Palestinako azti maltzur bati zelan gailentzen zaion. Edo unxi argentinarra, etxea kendu diotela eta, auzokoei laguntza eske... Ipuin tradizionalak nahastuz, istorio moderno, diberti-

IrudimenDeko Hiria

Otsailak 17, domeka

EUROESCENA (MADRIL)

Antzezleak: Carmen de la Maza, Manuel Galiana, Aitor Gaviria
Zuzendaritza: Salvador Collado


Me llamo Juan Ramón Jiménez... ?

Poesia bere barnean daraman antzerki ikuskizuna. Lehen mailako talde teknikoarekin eta Juan Ramón Jiménez poemi musika eta ahotsa jartzen dizkion Chili Valverde kantariarekin batera, testua, musika, ikus-entzunezkoak eta poesia uztartzen dituen ikuskizun handia. Omenaldi kutsua ere badu, egile horren memoriari eusteko balioko duen lanak.

Otsailak 19, martitena

ERRESUMA BATUA

Antzezleak: Al Pacino, Jeremy Irons, Joseph Fiennes, Lynn Collins, Zuleikha Robinson
Zuzendaritza: Michael Radford



El Mercader de Venecia

Zinea Coliseoan

William Shakespearen izen bereko antzezlanean oinarrituta, gertaera XVI. mendeko Venezian garatzen da. Bassaniok eskatzen dio Antonio merkataritari 300 dukateko mailegua Portia, fortuna handiaren jabea, bereganatzeko. Filma oso hurbil dago jatorrizko bertsiotik eta, berau aurrera eramateko, zinema eta antzerki munduan sona handia duten antzezleak aukeratu ditu.

Otsailak 20, eguaztena

À PETIT PAS (FRANTZIA)

Antzezlea: Leonor Canales
Zuzendaritza: Christian Coumin

Amour à Mère



Hezkuntza Esparruan

Protagonistak bere amaren, bere amandarearen edo bere gauzak kontatzen ditu eta baita euren arteko harremanak ere, edozeinenak izan daitezkeenak. Haurtzaroko oroitzapenak, tristurak eta alaitasunak, itoaldiak eta bozkarioak batzen dira antzeztokian. Kalitate



Ikasten-ekoak martxa betean

Debabarrenako Esperientzia Eskolaren inguruan sortutako Ikasten taldeak ez du atsedetik hartzen. Zapatuan euren ekimenez sortutako 'Kaleetan Kantuz'-en bigarren irteera egin zen eta talde polita batu zuten abesti ezagunak herriko kaleetan kantatzeko. Hurrengo irteerarako entsaiatzen joan nahi duenak, gogoratu eguaztenetan izaten direla entsaioak, 19.30etan San Andres elizako lokaletan.

Bestalde, atzo bertan aurkeztu zuten Industria Ingeniaritza Teknikoarekin elkarlanean antolatutako bideokonferentzia zikloa. Pertsona nagusiei unibertsitatea gerturatzeko bideetako bat da hau, teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerez baliatuta. Bideokonferentziei esker unibertsitate munduko hainbat gairen berri jaso dezakete 50 urtetik gorakoek, irakasleen hitzaldiak Eibarren bertan, Hezkuntza Esparruko ikasgela birtualetan jarraituta. Bideokonferentzia zikloa atzo hasi zen, osasun mentala-



LEIRE ITURBE

Zapatuan egin zuten agerraldia Kaleetan Kantuz-eko lagunek.

ren inguruan Enrique Echeburuak emandako hitzaldiarekin eta datozen asteetan jarraipena izango du, eguaztenetan 11.30etatik aurrera. Hilaren 21ean Paco Etxeberriak 'Medicina forense y memoria histórica' izenburuko hitzaldia emango du eta hilaren 28an, berriz, Kebir Sabar Cherguik 'El Islam en el mundo moderno' izenburukoa emango du. Apirilean beste gai batzuen inguruko hitzaldiak eskainiko dituzte EHUKo irakasleek.

Hainbat tokitan

Bestalde, Ikasten-etik adierazi digutenez, "aurrerantzean gure jarduerak toki ezberdinetan garatuko ditugu eta, beraz, interesatuei arreta ipintzeko

eskatzten diegu, gauza bakoitza non egingo den argi izateko. Zine forumak, Kutxaren ikastaroak eta Nagusientzako Unibertsitateko bideokonferentziak Hezkuntza Esparruan, Injeniaritza Eskolako San Andres Ikasgelan egingo dira. Sendabelarren foroaren jarduerak, berriz, Portalean izango dira hil bakoitzeko lehenengo astelehenean, DEOL-eko opera saioak Portaleko areto nagusian, Kaleetan Kantuz-eko entsaioak San Andres elizako lokaletan eta martitzen eta eguen goizetako jarduerak CEPAn (Isasi, 39an)". Dena dela, ekitaldi guztien berri <http://ikasten.nireblog.com> helbidean jaso daiteke.

Eibar Factoring eguaztenetik aurrera

Astelena frontoiak eguaztenetik aurrera hartuko du Eibar Factoring edo Eibarko beherapenen azoka. Hilaren 24ra arte Eibar Merkatari-tza Gune Irekiak antolatutako azoka berezian 30 bat dendarik parte hartzea aurreikusitako eta horietatik gehienak jantzidendetakoak izango dira. Azokaren azken edizioak Armeria Eskolan egin dituzte, Astelena itxita ze-

goelako, baina aurten azoka berriaz frontoira bueltatuko da. Antolatzaileek uste dute jendearenzat



erosoagoa izango dela azoka Astelena egotea, herriko erdialdetik gertuago dagoelako eta Eibar-ko jendeaz gain, inguruko herrietatik etorritako erosleak erakarri nahi dituzte. Eibar Factoring-eko aurreko edizioan 6.000 lagun baino gehiagok aprobetxatu zuten azken orduko merkealdia eta bisitarien artean ia erdia beste herrietakoak ziren. Joera horri eustea espero dute oraingoan ere.

Laburrak

EUSKALTEGIETAKO ZOZKETAK

Eibarko euskaltegi biek Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren barruan antolatutako zozketetan hauek izan dira sarituak: Kristina Garate eta Leire Gómez Udala Euskaltegian eta Xabier Ituarte eta Blanca Iratzabal AEK Euskaltegian. Zorionak lauei!

BULLYING-AREN HITZALDIA ATZERATUTA

Gurasoak Martxan programaren barruan Udaleko Gizartekintza sailak antolatutako bullying-aren inguruko hitzaldia atzeratu egin dute. Gaurko iragarrita zegoen hitzaldia, baina aste honetan bertan aditzera eman dutenez, hitzaldia hilaren 26an egingo da. Garbiñe Arrizabalaga Baikara-ko pedagogoa emango du hitzaldia Portalean, 18.30etan.

BERTSOAK KULTUN

Urteroko moduan, Arrate Kultur Elkarteak bertsolaritzari eskainitako programazioa prestatu du. Otsailaren 28an, 19.30etatik aurrera, Kultu tabernan bertso saioa egingo dute bertsolari gazteek. Martxoaren 1ean, berriz, bertso bazkaria egingo da Kultuko lehenengo solairuan, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus bertsolariekin. Gaiak jartzen hankamotzak Eibarko Bertso Eskola-koek jardungo dute. Horrez gain, Jose Luis Irigoienek iazko saioetan ateratako argazkien erakusketa tabernan ikusgai egongo da martxoan zehar.

Garitana

1957an sortua
GOZOTEGIA

- ETXERA banatzen dugu
- Ezkontza eta despedidetak TARTAK

Julian Etxeberria, 6
Tel. 943 20 24 51

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan


Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA
EHORZKETA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:
Txaltza-Zelai 4-6 behe, ezkerre

ZERBITZU IRAUNKORRA:
943 20 10 95 Faxa: 943 20 25 64



Atzerapausuak

Euskerian aldeko burrukia zentzu figuraduan ez fisikoan, jakina- fondoko antxintxiketa lezkoa da. Aspergarria egitten da abadiak lez gauza bardiñak esaten jardutzia baiña halan da; berbata kontuan egun batekuak ez dau larregi balio etenbariko saiatzea ez badakar.

Eta euskeriana, edur malutiak lur umeletan nekez zuritzen daben moduan, gurian be berbata kontuan aurrera egitten ez danielan, sarri ez da lengo moduan geratzen okerrago baiño. Sasi elebitasun edo bilingüismo egoeran holako gauzak pasatzen dira. Izan be, berbetak fenomeno dinamikoak dira euren hiztunak lez. Etenbarik dabiz, nahiz hiztunok konturatu ez, bata bestiarri lekua jaten.

Oingo urtietan zabaldu diran denda askotan ez da ordutegixa bera be euskeraz agertzen. Zer esanik ez, gauza gatxagoak, iragarkixak esaterako.

Aspaldi Eibarko etxe-saltzaille bulego bati euskeraz jarri netsazen bere anunzioak. Ez ziran gauza luzeak ezta be zailak. Egin bai, baiña nik ez dakit billurtu edo, gauzia da ze gaur dala eguna ez harek ez beste inok, oker ez bana-go, ez dabela ezer jartzen euskeraz euren erakuslehoetan. Oinarrixetan dago hamen akatsa. Bestien esku laga barik norberari ez bajako idea etortzen hamen jai dago. Hizkuntzarenganako sentsibilidadea.

Gero gure kultur mailla dago. Beste sentsibilidade era bat. Batzuentzat auzuan.

Errebal Center horrek bilbotartu egingo gaitu kontizu. Baleike batedobati eusko-anglo hibrido horri gauza dotoria iriztea.

Bixar edo etzi hori dendatzen hori zabaltzen danielan garbi dago erostallio ez garala betiko plazara joango. Hori bai. Hor goiko zatarkerixa hori pronunziatzen ikasten dogunian jakitunagoak izango gara. Gusto kontua ete da hori be?

Antxon Narbaiza

Lore Jokoak gogoan

Aurtengo irailean Euskal Lore Jokoak Eibarren ospatu zirela ehun urte beteko dira eta, hori dela eta, Udaleko Ego Ibarra batzordeak lanean dihardu mendeurrena ospatzeko programazio berezia prestatzen. Orain ehun urte Eibarren egindako Lore Jokoak hainbat egunez luzatu ziren eta ospakizunek Alfontso XIII.a eta Victoria Eugenia errege-erreginak gure herriraino ekarri zituen. Lore Jokoak XX. mendearen hasieran Iparraldetik gurera zabalduak kultur giroko jaiak izan ziren eta herri bakoitzean modu ezberdinetan ospatu zituzten. Eibarren armagintzak osatu zuen jaien ardatza eta, besteak beste, dantza erakustaldiak, musika bandaren



EIBARKO K.D.

Orain 100 urte egindako jokoetako bat baino gehiago errepikatuko da irailean.

emanaldia eta bertso saioa egin ziren 1908an. Horrez gain, herriko industriako hainbat produktu erakusteko aprobetxatu zituzten Lore Jokoak. Lehiaketak ere antolatuta ziren, besteak beste Eibarko historiaren ingurukoa. Lehia-

keta hori Gregorio de Mujikak irabazi zuen gure herriaren historia jasotzen duen monografiari esker. Irailerako programazioan, ahal den neurrian behintzat, 1908an egindako batzuk errepikatuko asmoa dute Udalean.

Jesika Martínez-Alcocer Portalean

Aurreko barixakuan inauguratu zuen erakusketa Portalean Jesika Martínez-Alcocer Ermuko gazteak. 'Interbentzioa aretoan' izenburuko erakusketak marrazkiak, akrilikoak eta eskulturak batzen ditu eta martxoaren 2ra arte egongo da zabalik, ohiko ordutegian: martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara.

Jesika Martínez-Alcocerrek 25 urte ditu eta Arte Ederretako azken kurtsoa egiten dihardu. Gaztea izan arren, aurretik ere erakutsi ditu bere lanak, besteak beste Leioan eta Getxon. Ermuko Lobiano jauregian iazko apirilean egin zuen erakusketan azken lau urteotako bere lanak erakutsi zituen. Erakusketan, Lobianon erakutsitako lanez gain, Portaleko erakusketa areto-



rako propio prestatutako lanaz gozatzeko aukera dago. Izan ere, aretoa bera mihise gisa erabili du, sokeaz, iltzeaz eta beste material batzuz baliatuz.



EKHOTZ ARANGUENA




ARTXIBOA

Billar txapelketa Casinoan

Ibarkurutzeko Casinoan, urtero lez, hiru bandara jokatzeko den billar txapelketa izan da jokoa eta, urtarrilaren 24an amaitutako lehiaketan, Rikar Ereña izan da irabazlea. Finalean Fer-

nando Berriozabali irabazi zion. Argazkian, euren batera, Antonio Sánchez arbitroa. Bertatik deia egiten diete billarrean jokatzeko zaletasuna duten herriko gazteenei Casinora gerturatzeko.



EKHI BELAR



Agiñaspi Aratosteetan onena

Elbarko Udalak urtero Aratosteetan inguruan antolatzen duen tabernak apaintzeko lehiaketa Urkizuko Agiñaspi tabernak irabazi du bigarren urtez jarraian. Agiñaspi tabernakoek herriko armagintzari eskainitako apainketari esker bereganatu dute aurtengo saria, lbarkurutzeko iturriaren erreplika. Taberna kokojantzeko Eibarren egindako armen irudiak eta bestelako apaingarriak erabili zituzten eta tabernako mahaietako batean armagin 'bizidun' bat ipini zuten beharrean. Iazko saria Erdi Aroko deko-razioari esker lortu zuten Agiñaspikoek.



Egurrolaren lanak Topalekuan

Domekara arte egongo dira ikusgai Alberto Egurrolaren lanak Arrate Kultur Elkarteko erakusketa aretoan. Topalekua ohiko ordutegian egongo da zabalik: gaur 19.00etatik 21.00etara eta bihar eta etzi, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara.

Arrate Kultur Elkartea orain dela 50 urte baino gehiago sortu zen. Tarte horretan Eibarko kultur munduaren inguruan egin du lan, oihartzun handia lortuz. Orain gazteek hartu dute txanda elkartean, ekoizpen kultural propioa finkatu eta indartzeko.



ANIAIZ ARIZNABARRETA, ARRATE KULTUR ELKARTEKOA: "Kultu partehartzaileagoa izatea nahi dugu"

- Arrate KE-n jende gaztea sartu zarete. Igartzen da al-daketa hori?

Kontua da lehen zegoen jende berarekin dihardugula lanean. Urte askotan ibilitako jendea da, baina ikusi zuten jende berria sartu behar zela. Eurekin ikasten dihardugu eta errotuta dauden ekimenak ikusten; gainera, oso jarrera ona topatu dugu gauza berriak planteatzeko edo eskaintza aldatzeko orduan. Orain arte egin diren ekimenak antolatzaren jarraitzen dugu, baina kutsu berri batekin. Horrela, eskaintza zabaldu nahi izan dugu, bai gazteei, bai bestelako interesak dituen jendeari; adin kontua baino, interes ezberdinak dituen jendea elkartu nahi dugu. Holan, esan daiteke 'aire freskoa' sartu dugula elkartean, baina ez gazteak garelako, berriak garelako baizik.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Partehartzeari lotuta doaz, batez ere. Horrela, Arrate KE partehartzaileagoa bihurtzea nahi dugu, zentzu guztietan. Ekimenak antolatzerako orduan, adibidez, badago lan talde bat hori bermatzen duena, baina gustatuko litzaiguke edozein interes dituzten pertsonak gugana hurbiltzea gauzak antolatzera. Ekimenei lotuta ere, partehartzaileagoak izatea gustatuko litzaiguke. Lehen ere bazeuden hainbat ekimen ezberdin (margolari-

tza ikastaroak, lehiaketa...), baina zabalagoak zirenetan ikusle papera zen gehienbat sustatzen zena.

- Nola doa bazkide kanpaina orain arte?

Bazkide kanpainarekin bazkide berriak lortu nahi genituen, baina horrek helburu bat dauka: zeintzuk diren zabal-tzea hainbat esparrutara. Izan ere, Kultu beti hor egon bada ere, ez genuen bertan partehartzeko erreferente bat bezala ikusten, ez genuen guk bertan sartzeko aukera ikusten edo lan egiteko esparru bezala. Horren berri eman nahi dugu: zer den Kulturala, zer ekarpen egin dezakeen, bakoitzak zer ekarpen egin diezaiokeen Kulturalari, eta bazkide izateak zein eskubide eta aukera ematen dituen. Kanpaina iraunkorra izango da eta komunikazio modu berriak bultzatu nahi ditugu bazkideekin iradokizun eta proposamenak jasotzeko.

- Otsallaren 28rako bertsolari gazteen ekitaldia antolatuta duzue. Nolako izango da?

19.30etan Uxue Alberdi eta Xabi Paia etorriko dira tabernara eta gai librean arituko dira; sarrera doakoa izango da. Martxoaren 1ean, bertso-bazkaria egongo da lehen pisuan, Amets Arzallus eta Maialen Lujanbiorekin. Bazkaria joateko, bazkideek 27 euro ordaindu beharko dute eta beste guztiek 30 euro, eta sarrerak Kultun bertan egongo dira salgai.

telefono jakingarriak

SOS deiak..... 112
 Pegora010
 Udaletxea943 70 84 00
 Portalea943 70 84 39
 Udaltzaingoa.....943 20 15 25
 Mankomunitatea....943 70 07 99
 Debegesa943 82 01 10
 KIUB943 20 38 43
 Epaitegia943 03 34 00
 Iberdrola.....901 20 20 20
 Naturgas.....902 12 34 56
 DYA Larrialdia...943 46 46 22
 Gurutze Gorria....943 22 22 22
 Mendaro osp.....943 03 28 00
 Anbulategia.....943 03 25 00
 Torrekua943 03 26 50
 Errepideak.....902 11 20 88
 Ertzaintza943 53 17 00
 Eusko Tren.....902 54 32 10
 Pesa902 10 12 10
 Taxiak943 20 30 71
943 20 13 25
 Alkoholiko Anonimoak 629 14 18 74

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutegia: 07.00, 08.50, 10.30, 13.30 eta 18.30. Laneguna: 08.00, 15.30, eta 20.30. Jaieguna: 09.30 eta 20.30. DONOSTIA-EIBAR. Egutegia: 12.30, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30 eta 13.30. EIBAR-BILBO. Laneguna: 06.40etatik 20.40etara orduro. Zapatua eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara orduro. BILBO-EIBAR. Laneguna: 06.40etatik 21.40etara orduro. Zapatua eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara orduro. EIBAR-GASTEIZ. Egutegia: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapatua: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaieguna: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. GASTEIZ-EIBAR. Egutegia: 08.30, 12.30, 16.30 eta 20.30. Jaieguna: 08.30, 10.30, 12.30, 16.30, 18.30 eta 20.30. EIBAR-IRUÑA. Laneguna: 07.45 eta 13.30. Jaieguna: 07.30 eta 18.00. IRUÑA-EIBAR. Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaieguna: 10.45 eta 21.00. EIBAR-ARRATE. Zapatua: 14.15. Domeka eta jaieguna: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. ARRATE-EIBAR. Zapatua: 14.45. Domeka eta jaieguna: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. EIBAR-ELGETA. Laneguna: 13.30 eta 20.20. Domeka eta jaieguna: 12.00 eta 19.00. ELGETA-EIBAR. Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaieguna: 12.30 eta 19.30. ERMUA-MENDARO. Asteleheneretik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduerdiro). Zapatua-Domeka-Jaieguna: 06.50-etik 21.50-era orduro. MENDARO-ERMUA. Laneguna: 06.55etatik 21.55etara orduerdiro. Zapatua-Domeka-Jaieguna: 07.55-etik 21.55-era orduro.

tren ordutegiak

EIBAR-BILBO. Laneguna: 06.13etatik 21.13etara orduro. + 10.35 eta 21.38. BILBO-EIBAR. Laneguna: 05.57etatik 20.57etara orduro. + 09.34 eta 20.18. EIBAR-DURANGO. Egutegia: + 22.18. EIBAR-DONOSTIA. Laneguna: 06.13etatik 20.13etara orduro. + 10.35 eta 21.38. DONOSTIA-EIBAR-ERMUA. Laneguna: 05.47etatik 20.47etara orduro.

eguraldia

Euskal Meteorologia Agentziatik

LAINOAK ETA OSTARTEAK

ZAPATUAN laino batzuk agertuko dira, baina eguzkia nagusituko da eta, ondorioz, **tenperaturak gora** egingo du, hego ikutuko haizeak lagunduta. **DOMEKAN**, berriz, lainoak ugartu egingo dira eta **termometroak behera** egingo du. Hala ere, ez da euririk espero.

15 barixakua

EGO IBAR ZINEKLUBA

17.30 eta 21.00.- '2 días en París' (Zuz: Julie Delpy). Sarrera: euro 2. Hezkuntza Esparruan.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.30.- 'Rebeldías posibles' (Cuarta Pared, Madrid). Hezkuntza Esparruan.

16 zapatua

ANTZERKI JARDUNALDIAK

18.00.- 'Irudimendeko hiria' (Gorakada, Bizkaia). Coliseo antzokian.

17 domeka

UMEENDAKO ZINEA

17.00.- 'Bee movie' (marrazki bizidunak). Sarrera: 2'80 euro. Amaña Kultur Aretoan.

PELOTA

17.00.- Capellán-Eulate vs Olazabal-Goñi III.a. Xala-Pascual vs Koka-Begino. Díaz-Mendizabal vs Uriarte-Galartza VI.a. Astelenan.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.00.- 'Me llamo Juan Ramón Jiménez...?' (Euroescena, Madrid). Coliseo antzokian.

'EIBAR FACTORING' beherapenen azoka.

Noiz: Otsailaren 20tik 24ra.
 Non: Astelena frontoian.

18 astelehena

IKASTEN

16.00.- Mermelada eta kontserbak artisau-erara egiten ikasteko tailerra. Portalean.

19 martitzena

IKASTEN

09.30/12.30.- 'Ekonomia', Iñaki Ugalderekin. CEPAn (Isasi, 39).

HITZALDIA

19.00.- "Gaur egungo egoera politikoa". Hizlaria: Patxi Zabaleta. Portalean.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

21.30.- Antzerkia zine-man: 'El mercader de Venecia' (Zuz: Michael Radford). Sarrera: 3'5 euro. Coliseo antzokian.

lehiaketak

Makrolehiaketa
 Epea: **Martxoaren 2ra arte.**
 Informazioa:
 Errota Gaztelekuan

ProiektEIBAR Proiektu Teknologikoen Lehiaketa
 Epea: **Martxoaren 1era arte.**
 Informazioa:
 www.euiti.eibar.ehu.es

XI. Egutegia Zuri Argazki Lehiaketa
 Gaia: Aratosteak.
 Epea: **Martxoaren 4ra arte.**
 Informazioa: Arrate Kultur Elkarte.
 www.eibar.org/blogak/kultu

XIV. Ipurterre Ipuin Lehiaketa
 Epea: **Martxoaren 12ra arte.**
 Informazioa: ...eta kitto!
 Euskara Elkarte.
 943-200918 telefonoa

II. Industriagintzari buruzko argazki lehiaketa
 Gaia: Industriagintza.
 Modalitatea: Euskarri digitala.
 Epea: **Martxoaren 14ra arte.**
 Informazioa: Armeriako Ikasle Ohien Elkarte.
 943-203146 telefonoa.
 aaa@armeriaeskola.com

20 eguaztena

GURASOAK MARTXAN

19.00.- 'Cómo prevenir el fracaso escolar'. Amaña herri ikastetxean.

IKASTEN

19.30.- Kaleetan Kantuz. Entsaioa. San Andres elizako lokaletan.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.30.- 'Amour a meré'. (A Petit Pas, Frantzia). Hezkuntza Esparruan.

21 eguena

SORMEN TAILERRA

09.15/14.15.- Tekniker-
 IK4. Sormen tailerra. Markeskua jauregian.

IKASTEN

11.30.- Bideokonferentzia: 'Medicina forense y memoria histórica'. Paco Etxeberría EHU-ko irakaslearekin. Hezkuntza Esparruan.

erakusketak

Otsailaren 17ra arte

Alberto Egurrolaren margo erakusketa. Topalekuan.

Otsailaren 28ra arte

Mateo Guillabert-en argazki erakusketa. El Ambigú kafetegian.


Alberto Lukeren argazki erakusketa. Deporreko tabernan.

Alejandro Bergararen argazki erakusketa. Portalea tabernan.


Martxoaren 2ra arte

Jesika Martínez-Alcocer-en 'Interbentzioa aretoan' erakusketa (marrazkiak, akrilikoak, eskulturak). Portalean.

denborapasak



Aurkitu hemen Gorosta balleko 15 baserrien izenak.



Aurrekoaren
SOLUZIOA

farmaziak

- 15. barixakua**
GOIZEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- 16. zapatua**
GOIZEZ **Golkoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)
- 17. domeka**
GOIZEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)
- 18. astelehena**
GOIZEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)
- 19. martitzena**
GOIZEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)
- 20. eguaztena**
GOIZEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)
- 21. eguena**
GOIZEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- 22. barixakua**
GOIZEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

hildakoak

- **Francisca Arizmendi San Pedro.**
94 urte. 2008-II-7.
- **Lucia Totorika Uriarte.**
87 urte. 2008-II-7.
- **Antonio Cruz Brazo.**
87 urte. 2008-II-8.
- **Francisco Camacho Flores.**
79 urte. 2008-II-10.


zinemazinemazinemazinema



untzaga
"Jumper"

ZUZENDARIA:
Doug Liman
AKTOREAK:
Hayden Christensen, Jamie Bell, Samuel L. Jackson, Rachel Bilson...

David Rice-k botere bereziak ditu, munduko punta batetik bestera lekualdatzeko edo paretak zeharkatzeko boterea, adibidez. Munduan bakarra dela pentsatzen du, baina ez da horrela eta gainera uste baino etsai gehiago du...



coliseo
"El mercader de Venecia"

ZUZENDARIA:
Michael Radford
AKTOREAK:
Al Pacino, Jeremy Irons, Joseph Fiennes, Lynn Collins...

Shylock prestamista da XVI. Mendeko Venezian. Antoniok dirua eskatuko dio, bere lagun onenari laguntzeko asmoz. Antonioren negozioak desagertzen direnean, Shylock-ek dirua berehala bueltatzeko eskatuko du...



ego-ibar
"2 días en París"

ZUZENDARIA:
Delpy
AKTOREAK:
Adam Goldberg, Julie Delpy, Daniel Brühl, Marie Pillet..

Pareja batekin pasatuko ditugu hurrengo 48 orduak. Neska frantsesa, gizonezkoa amerikarra; Parisen daude eta berbetan pasatuko dute denbora. Euren arteko arazoak zeintzuk diren ikusteko aukera ezinhobea...



amaña
"Bee movie"

ZUZENDARIA:
Steve Hickner & Simon J. Smith
AKTOREAK:
Barry B. Benson, Vanessa Blome, Adam Flyman, L. Montgomery..

Barry B. Benson erlea da; unibertsitatea amaitu berri du eta eztiaren munduan lan egiteko asmorik ez du. Etxetik irten bezain pronto, erleen munduan dagoen arau nagusia hautsiko du: Vanesa lora saltzaila ezagutu eta berarekin berba egingo du...

ETXEBIZITZAK

- Eibar erdialdean pisua hartuko nuke alokairuan. 3 logela eta egongelarekin. Tel. 943-203924.
- Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 626-061112.
- Debagoienan edo Debabarrenan pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 619-812347.
- Pisua salgai Legarreko dorreetan. 3 logela, egongela, sukaldia, komun bi, balakoa eta despentsa. Eguzkitsua eta dena kanpora begira. Tel. 653-733357.
- Soralezuko Rabal kalean pisua salgai. 64 m². Logela bi, egongela, sukaldia eta komuna. Tel. 658-339709.
- Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 649-199638.
- Pisua salgai Egigurentarrenean. Logela bi, sukalde-jangela-egongela eta komuna. Trasteroa etxe barruan eta beste bat kanpoan. Jantzita. Egoera onean. Tel. 635-752986.
- Logela edo pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 679-568370.
- Logela alokagai. Tel. 686-286110.
- Pertsona behar da etxea konpartitzeko. Oso prezio onean geratzen da alokairua. Tel. 637-528992.
- Neska eskaintzen da etxea alokairuan konpartitzeko. Deitu arratsalde. Tel. 652-716135.

SALEROSKETAK

- Ganbarako eskilara tolesgarria oparitzen da. Deitu 19.30etatik 21.30etara arte. Tel. 943-200791.
 - Errepideko bizikleta salgai. Vitus Futural koadroa, 56 tailakoa, kanbioak manillarrean. 175 euro. Tel. 943-530880 edo 688-609610.
 - Ejekutiboarentzako narruzko maletina salgai. Erabili gabe. Tel. 676-116300.
 - Jantokiko mahaia eta aulkiak salgai. Berriak. Tel. 943-702589 edo 686-031181. Teresa.
 - Las aventuras de Tintin en 14 bideo salgai. Fundarekin. Berriak. 7 euro. Tel. 943-120030.
 - Ohe-nidoa, eskritorioa, apala, sinfonierria eta almohada-kutxa salgai. Merke eta berria. Tel. 943-701183.
 - Kotxe-kapota, silla txikia eta kapazoa salgai. Bebe-car markakoa. Tel. 943-200739 edo 605-774767.
 - Korrika egiteko zinta salgai. Tel. 656-789221.
 - Telebistarako kristalezko altzaria salgai. 3 apal eta modulua. Berri-berria. Prezio onean. Tel. 665-701663.
- ## LOKALAK
- Jateetxea traspasoan jubilazioarengatik. Martxan eta oso egoera onean. Tel. 697-494283.
 - Trasteroa erosi edo hartuko nuke alokairuan. Tel. 627-934675.

LANA


- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Baita jostun lanetarako ere. Tel. 686-521598.
- Neska behar da asteburu eguerdian kamarera bezala eta sukalde lanak egiteko. Tel. 699-181472.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako. Tel. 649-368137.
- Neska eskaintzen da orduka umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 660-739555.
- Neska eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 630-404538.
- Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko. Tel. 616-305808.
- Neska eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 697-869958.
- Mutila eskaintzen da kamarero moduan edo garbiketa lanak egiteko. Tel. 680-250527.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu, garbiketa lanak egin edo kamarera moduan. Tel. 680-250527.
- Enpresa Zientzietan diplomatuak laguntza klaseak ematen ditu etxetik. Edozein irakasgai. Tel. 647-232536.
- Ingeleseko klaseak ematen dira etxetik. Tel. 647-232536. Jaione.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 659-627356.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 658-400556.
- Lizentziatuak klase partikularak ematen ditu maila guztietan. Talde txikiak eta prezio onean. Tel. 943-121898.
- Sukaldaria behar da. Esperientziarekin. Tel. 610-619421. Rakel.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 639-240038.
- Neska eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 679-568370.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 636-172765.
- Neska eskaintzen da orduka nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 690-134485.
- Neska eskaintzen da orduka nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 686-127137.
- Neska eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 697-869958.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 697-431326.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 667-908749.
- Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 605-772606.
- Gizona eskaintzen da pegorak, lantegiak eta obra amaierako garbiketarako. Tel. 622-625812.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 616-230814.
- Neska eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 618-156794.
- Administraria eskaintzen da arratsaldez orduka lan egiteko. Esperientzia. Tel. 699-069080.
- Neska arduratsua eskaintzen da orduka umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 679-095634.
- Neska eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 620-336722 edo 943-120058. Yaneth.
- Tarota irakurtzen da. Tel. 608-005812.
- Neska euskalduna behar da arratsaldez umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Deitu 21.00etatik aurrera. Tel. 696-179224.
- Sukalde laguntzailea behar da. Tel. 943-121262.

Iragarkiak ipintzeko: 943-200918 (Marisol).

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako **PREZIOAK** honakoak dira: **Etxeak, lokalak, garajeak:** alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. **Autoak:** 10 euro. **Doaneko iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.**

...eta musu bat zuretako

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 3 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 6 euro. Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, IRATI Alberdi Castro, gaur urte bi betetzen dittuzulako. Gurasuen partez.



Zorionak, EKAIN Gallastegi Gandiaga, hillaren 12xan urtebete egin zenduan-eta. Amatxo, aita eta Anderren partez.



Zorionak, IRATI Arakistain Mendizabal, domekan 5 urte egingo dittuzulako. Aitxita, amama, Oihana eta etxekuen partez.

EIBAR



Eibarko inguru onenean bizi nahi duzu?

Gela bateko apartamentuak 180.000 €-tik

Gela biko etxebizitzak 260.000 €-tik

Ordainketarako erosotasuna eta zure etxebizitza saltzeko konponbidearekin

INFORMAZIOA
ETA SALMENTA

Egogain kalea
(Autobus geltokiaren
ondoan)

943 20 21 99

LANDU
Promoziak

**Klase teoriko
zein praktikoak**
norberak nahi
dituenean

Klase teorikoak
**ikusentzunezkoen
abantailak**
erabilita

Merkantziak
eta bidaiariak
garraiatzeko
nazioarteko
agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak

**GIDATZEKO
KARNET
GUZTIAK**

SOLOZABAL
autoeskolak

HELBIDE BERRIA
Estaziño kalea, 8

Tel. 943 70 23 84

ETESA

Tfnoa. 943 12 19 73 - Faxa. 943 12 70 68
Bidebarrieta, 66 - 428 Postakutxa - 20600 EIBAR
e-mail: etesa@euskalnet.net



ALTZARIAK-AULKIAK



BULEGOAK BANATZEKO MAMPARAK



BULEGOETAKO INSTALAZIO OSOA